



Santafeak Zaldibian



Artisaualdia
Ordizian

DYA Goierrin



Migdala



943 02 73 63 • Oriamendi, 29 • 20200 Beasain • Gipuzkoa

JOSEP FONT - TANIA DEL VIEJO - OILILY - CELIA VELA - VICTORIO Y LUCCHINO - LOLA MENTO - DEVOTA Y LOMBA - IKKS - VUE SUR MER - TERRE & MER
LACOSTE - MACHU PICHU - REDWOOL - CALVIN KLEIN - ARMANI - DANIEL ESPINOSA - MICHAL NEGRIN - CADENA LA MAGLIA - LOLLIPOPS - FLAMENCO



GARMENDIA

Tejas y cubiertas S.L.


VACSOL - WR^R TRATAMENDUA EGURRARENTZAT

OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA

Edozein motatako teilatuak
egiteko prestatuak,
komunitateak, baserriak,
txaletak eta abar

AZKENEKO AURRERAPEN GUZTIAK

AURREKONTUAK NEURRIRA



Maioz industrialdea, 25-26

ORDIZIA

Tel. : 943 161 032 / Faxe: 943 160 842

www.landrover.es



Land Rover kontzesionario berria ireki dugu Gipuzkoan. EUROLAN 4x4



THE LAND ROVER EXPERIENCE

EUROLAN 4x4 Donsotia-Hernani errepidea (Galarreta) Telefonoa: 943 331 006

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)
124 posta-kutxa **ORDIZIA**
Tfnoa: 943 88 96 12
Faxa: 943 88 27 19
E-mail:
goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazioa: Mikel Albisu
Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Iñaki Gurrutxaga, Saroi Jauregi, Agurtzane Bikuña, Aitziber Murua, Iñaki Ugalde, Mari Flor Mendizabal, Aimar Maiz eta Joxan Auzmendi..

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.300 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



*Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria*



Goiart Saria 2000-ko irabazleak

I. Arte plastiko eta ikus-entzunezkoen Goiart 2002-Ordizia saria

Arte plastikoak eta ikus-entzunezkoak sustatu eta zabaltzeko helburuarekin Ordiziako Udal Kultur saila egiten ari den ekintzen artean, I. arte plastikoen eta ikus-entzunezkoen Goiart 2002 Ordizia saria dago. Oinarriak dagoeneko kaleratu ditu Ordiziako Udalak.

Euskal Herrian jaiotako edo bertan bizi diren artistek har dezakete parte lehiaketan. Bertan bizi direnek, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean, gutxienez urte bete bertan bizitzen daramatela egiaztatu beharko dute.

Egile bakoitzeko, gehienez, bi lan onartuko dira. Inolako baldintzarik gabe, tamaina, teknika, aurkezpen, gaia... eta abarri dagokionean. Muntatzeko jarraibide bereziak behar izanez gero, lanarekin batera bidali beharko dira.

Sariei dagokienean, lau sari emango dira: lehenengoarentzat 3.000 euroko saria egongo da; 2.arentzat, 1.500 eurokoa; hirugarrenarentzat 900 euro. Goierriko artisten lanarentzat ere sari berezia izango da: 600 euro. Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Gabiria, Idiazabal, Itsasondo, Laz-

kao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Zaldibia, Zegama eta Zerrain jaio edo bizi den artistaren lana sarituko du beraz epaimahaiak.

Saritutako lanak Ordiziako udalaren esku geldituko dira. Erakusketaren bat ere antola dezake Kultura sailak.

Arte plastikoekin zerikusia duten adituek osatuko dute epaimahaiak. Abenduaren 16a bitartean aurkez daitezke lanak, Ordiziako Barrena Kultur etxean.

Lanarekin batera kartazal itxi batean ondoko agiri hauek bidali behar dira: Nortasun Agiriaren kopia, artistaren datuak eta kurrikuluma, lanen argazkiak, azken urte betean Euskal Herrian bizi dela egiaztatzen duen agiriak, eta norbera eta lanari buruzko argibideak. Kartazalaren kanpoan egilearen izena jarri beharko da. Lana bidali eta itzultzeko garraio-asegurua eta gastuak partehartzaile bakoitzak ordaindu beharko ditu. Lehiaketara aurkezturiko lanek izan ditzaketen kalte edo galerak ez dira antolatzaileen erantzukizuna izango.

Goierritarra Goierrikan kanpo jaso nahi dutenenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:	urtean 12 euro
Ipar Euskal Herria eta Europa:	urtean 24 euro
Europaz kanpo:	urtean 36 euro

Hodei Galarraga hil da

Irailaren 23an, Bilboko Basurto auzoan, hil zen 22 urteko zaldibitarra, gidatzen ari zen autoan zeramaten lehergailuak lehertu ondoren. Aste guztian Zaldibian mobilizazio ezberdinak egin zituzten. Informazio gehiago Zaldibiako kronikan duzue.

Rafael Berasategi atxilotua

Segurako 51 urteko Rafael Berasategi Guardia Zibilak atxilotu zuen irailaren 29an, goizaldean, bere etxean. Acebes Barne Ministroak, ETaren Donostia komandoaren laguntzaile izatea leporatzen dio Berasategiri.


Goierritarra aldizkariaren laguntzaile kanpaina Ordizian eta Beasainen

Uda pasatu ondoren, urriarekin batera, berriz ekingo dio GOIERRITARRA aldizkariak urtearen hasieran martxan jarritako laguntzaile kanpainari. 2002. urtearekin batera, posta gastua bikoiztu egin zutenez, GOIERRITARRA aldizkaria egoera larrian gelditu zen. Jakina baita, GOIERRITARRA aldizkaria dohainik banatu izan dela 13 urteotan. Egoera berriaren aurrean, ordea, GOIERRITARRA aldizkariak irakurleei, borondatezko laguntza eskatu behar izan die; urtean 12 euroko laguntza.

Urtea amaitu aurretik, beasaindarren eta ordiziarren txanda izango da. GOIERRITARRA aldizkaritik telefono deia jasoko duzue etxean. Dena den, eta lana erraztearren, azpian dagoen txartela bete eta Ordiziako 124 posta kutxara bidaltzea eskertuko dizu GOIERRITARRA aldizkariak, guztiontzat ere errazagoa baita bide hori.

Beraz, GOIERRITARRA aldizkaria lagundu ez baduzu, oraindik ere baduzu aukera. Hilean euro 1en truke, urtean 12 euro, hamabostero GOIERRITARRA aldizkaria jasoko duzu etxean. Goierriko informazioa, euskara hutsean.

Aldez aurretik eskerrik asko.



hilean euro 1
Goierritarra
etxean jasotzeko

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria:

Telefona: **Adina:** **NAN:**

Kontu zenbakia (20 digitu):

Goierritarraren harpidedun naiz
eta hala izaten jarraitu nahi dut ☐

Ez naiz Goierritarraren harpide
eta hemendik aurrera izan nahi dut ☐

**Bidali txartel hau helbide honetara: Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia
eta posta gastuak ordaintzeko urtean 12 euro (2.000 pezeta inguru)
kobratuko dizkizugu zure kontu korrontetik**



Biloretik kaleratutakoen protesta Ordizian

Irailaren 28an, Ordizian, Biloreko langile kaleratuek, CCOO sindikatuak deituta, manifestazioa egin zuten. Langileek zuzendaritzaren aurkako oihuak egin zituzten eta Eusko Jaurlaritzari zuzendaritza aldatzeko eskatu zioten. Biloreko zuzendaritzak 53 langile kaleratu zituen abuztuan; horietatik 31 CCOO sindikatuak dira; eta kaleratutako guztien artean 27, emakumezkoak. CCOOk ELA eta LAB sindikatuak kaleratzeen erantzule egin zituen, plana onartzeagatik.

Aralarko artzainei mendi larreak babesteko laguntza

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Aralarko artzainei mendi larreak babesten laguntzeko Dekretua onartu du. Hektareko 73 euroko laguntza emango dute urtero, eta ganaduzale bakoitzak 4.800 euroko gehienezko laguntza jaso ahal izango du. Foru Aldundiko iturrien arabera, Aralarko jabetza publikoko lurretan abelburuak bazkatzeko baimena duten eta bordara ibilgailuz igotzeko biderik ez duten artzainek jasoko dute laguntza.

Iñaki Azurmendi Euskal Herriko aizkora txapelketako finalean

Arriarango Iñaki Azurmendi aizkolariak, Euskal Herriko aizkora txapelketako finala jokatu du. Aurten lehenengo aldiz jokatu du lehen mailako txapelketan, aizkolari onenekin. Donato Larretxea, Floren Nazabal, Joxemiel Peñagarikano, Joxejuan Barbarena, Joxemari Olasagasti eta Iñaki Azurmendik jokatu dute finala.



Joseba Beloki 3. Espainiako Itzulian

Lazkaoko txirrindulariak 3. postua eskuratu du Espainiako txirrindu itzulian.

Jauregi 3. Oñatiko Nazioarteko artzain txakur txapelketan

Lazkaoko artzainak, Jose Mari Jauregik, hirugarren egin zuen Oñatiko Nazioarteko artzain txakur txapelketan, Bixkor txakurrarekin.



**Barandiaran
ZERAMIKAK**



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 **Senpere, 7 BEASAIN**



Errehabilitazioa

Fisioterapeuta behar da

943 88 12 71
Andra Mari kalea, 11-1.B
BEASAIN

Kaixo lagun!

Jon Gorrotxategi naiz, eta Soto del Realeko presondegian nago. Zuregana zuzentzearen arrazoia euskal preso baten osasun egoera larriaren berri eman eta zure laguntza eskatzea da.

Bautista Barandalla, nafar preso politikoa, 12 urtez espainiar kartzeletan egon ondoren, azken biak gaixorik eman ditu, hesteetako gaixotasun larria sortu baitzaio.

Denbora guzti honetan izan duen osasun arreta hutsaren hurrena izan da, azkenean heste luzea kendu behar izan dioten arte eta orain poltsa bati lotuta bizitzera behartua dago, oinaze handiekin, eta izaten dituen gora-beheren ondoren, kilo asko galduaz.

Bere gaixotasuna sendaezina denez eta kartzelatik kanpo jaso dezakeen arretak bere bizia salbatu dezakeenez, kasu hauetarako legeak jasotzen duen 92. artikulua aplikatzea eskatzen dugu.

Horretarako, Soto del Realeko euskal preso politikoak txandakako gose greban gauden, beste eragile sozialekin batera, Bautistari 92. artikulua aplikatu eta askatasuna eman arte.

Gutun honekin, zure/zuen esku-hartzea eskatu nahi dizut/dizuet, Zaintzako Epaileari gutunak bidaltzeko (Juez de Vigilancia Penitenciaria de Iruñea, C/Navas de Tolosa, 31071, Iruñea), behar diren kudeaketak egiteko, prentsa oharrek bidali edota mobilizazioak antolatzeke, e.a., beti ere, horrelako kasutan erantzun sozialak erakutsi duen eraginkortasuna kontuan harturik.

Zenbat eta presio handiagoa, orduan eta azkarrago aplikatuko diote 92. artikulua.

Gutun honi eskainitako arretagatik eta zure laguntzagatik aurrez eskerrak emanaz agurtzen zaitut.

Jon Gorrotxategi (Soto del Real)

Matxinatuen korrikaldia badator Goierriara

Laster abian jarriko da 2002. urtean lehenengo aldiz egingo den korrikaldi nazional hau. Urriaren 6an jarriko da martxan, Euskal Herri osoa zeharkatuko duelarik. Bidean, Gazte Mugimenduko taldeek, kultur arloko taldeek

edota zenbait kirol taldek hartuko dute parte, guztiak batera, Euskal Herriari zor zaizkion eskubideen alde Korrika!

Korrikaldi honen xedea, besteak beste, lau aldarrikapen nagusi egitea da: alde batetik, Inposaketarik ez! Lelopean zutabe bat abiatuko da, Euskal Herriak bi estatuen agindu, lege edota kultura inposaketarik nahi ez duelako eta onartzen ez duelako. Beste zutabe bat, Intsumisioa lelopean irtengo da, aurrez esaniko nortasuna gorde eta babesteko. Intsumisioa lege zapaltzaileei, intsumisioa erdarazko eredu, intsumisioa euskal nortasuna ukatzen dutenei,...

Abian jarriko den beste taldea Independentzia izeneko izango da. Gure herria mundu kapitalista, globalizatu eta egunetik egunera zoroago honetatik at mantendu behar dugulako, bizi eredu berri batzuk martxan jarri, berdintasunean ongizate sozial eta ekonomikoan oinarritua, gizakume guztiei atearik gabalik edukiko dizkiena kolore edo arrazari begiratu gabe,.... Hau posible izateko beharrezko dugu independentzia, inoiz ez baita posible

izango Frantziar eta Espainiar estatuen menpean jarraitzen dugun bitartean.

Laugarren eta azken zutabea Guk Euskal Herria lelopean joango dena da, hain zuzen ere Goierritik igaroko dena. Inork ezkutatu ezingo duen herri bat bizi delako Kantauri itsasoko ertzean, Nafarroa eta Arabako lautada eguzkitsuetatik hasi eta Gipuzkoa, Bizkaia, Zuberoa, Behe Nafarroa eta Lapurdiko mendi berdeak barne dituen. Euskara bere hizkuntza duena, arbaso zaharregandik jasoa, beste hainbat ohitura eta irakatsirekin batera.

Esan bezala azken hau izango da, Lazkaotik hasi eta Beasain gurutzatu ondoren, Ormaiztegitik pasaz Zumarraga aldera joango dena. Egun hau urriaren 11a izango da eta goizeko 11etan ordua. Aurrez aipatu moduan talde ezberdinetako partaideak izango dira bertan, baina nahiz eta hauek lekukoa eramateko arduradunak izan, herri guztia gonbidaturik dago bertan parte hartzera, gazteak eta helduak, eta zaharxeagoren batzuk animatzen badira, bejondeiela!

*Unai Matxain
(Goierriko Gazte Mugimendua)*



PALACIO ORIENTAL

JATETXE TXINARRA

東園酒家

✕ Kalitate eta zerbitzu hoberena

✕ Etxerako zerbitzua Goierri osoan

☎ 943 725 243 Labeaga, 33 H URRETXU

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60 Faxa: 943 08 55 61

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN



**GENERALI
Aseguroak**

INAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

☎ 943 88 87 02

BEASAIN

Arkupe
tapizegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Endredolak

Mantak - Malndireak - Storeak

Toallak - Gortinak eta osagalak

J. M. Barandiaran Plaza

☎ 943 88 00 84

ORDIZIA

Globalizazioa: betegabeko promesak

Azken urteotan globalizazioaren erakunde-
en (Nazioarteko Fondo Monetarioa, Mun-
duko Bankua edo Merkataritzaren Mundu-
ko Erakundea) bilerak ospatzen diren tokie-
tan, horien aurkako mobilizazio handiak
ematen dira eta batzutan iskanbila larriak
ere bai (Genovan manifestari bat hil zuten).

Aipatutako erakundeen kontrako mobili-
zazioak zaharrak dira. Aspalditik dabilta
mundu azpigaratuko herriak erakunde ho-
riek ezarritako austeritate-programa zorro-
tzezien kontra borrokatzen, baina ez zen
zabaltzen horien berri herrialde aberatse-
tan.

Joseph Stiglitzek "El malestar en la glo-
balización" liburuan dioenez, globalizazio-
ak ez ditu bete herrialde azpigaratueta ir-
bazi ekonomikoetara buruz egindako prome-
sak. XX. mendeko azken hamarkadan mun-
duko errenta urteko %2,5 igo zen bitarte-
an, eguneko euro bat baino gutxiago dute
pobreen zenbakia ehun milioitan igo zen.

Herrialde aberatsek merkataritzari ozto-
poak kentzera behartu zituzten herrialde
pobreak, baina eurek ez zituzten kendu be-
raienak eta herrialde azpigaratuak ezin izan
dute beren produkturik esportatu hain be-
harrezkoa duten errenta lortzeko. Neurri
honek herrialde aberatsetako biztanleria
ere kaltetzen du, kontsumitzaile bezala,
produktuen prezio altuagatik (lehia falta)
eta zerga-ordaintzaile bezala, bertako pro-
duktuei emandako diru laguntzagatik.

Oro har, 1995etik aurrera herrialde po-
breenak saltzen dituzten produktuen pre-
zioek behera egin dute eta herrialde abera-
tsetatik erosten dituztenenak berriz gora.
Ondorioz pobreak pobreago dira orain.

"
Onura baino kalte
gehiago ekarri dio
munduari
globalizazioak"

Joxan Auzmendi

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

Gainera, sarritan gertatu da Mendebal-
deko espekulatzailerik zenbait herrialdeeta-
ko ekonomiak lur jota uztea. Espekulatzai-
leek herrialde bateko txanpon baten deba-
luazioa usaintzen dutenean dolarrak eros-
ten dituzte eta orduan txanpon haren ba-
lioak behera egiten du. Egoera horretan,
herrialde horretako Gobernuak bere txan-
ponaren balioari eusteko ahaleginean, bere
erreserbetako dolarrak saldu eta bertako
txanpona erosten du harik eta Gobernuak
dolarrik gabe geratu arte. Orduan bertako
txanpona guztiz hondoratzen da eta espe-
kulatzailerik orain erosi dezakete berriro ere
devaluatutako txanpona sekulako irabazia
lortuz.

Orain arte aipatutakoa gutxi bada, glo-
balizazio era honen bultzatzaileek (EEBB
buru dutela) herrialde aberatsetako indus-
tria farmazeutikoen jabetza intelektuala he-
rialde pobreek ez bereganatzeko araua
ezarri dute. Ondorioz milaka pertsona hil-
tzen da herrialde pobreetan industria far-
maceutiko horren botikak erosteko dirurik
ez daukatelako, jakin badakigunean botika
horiek produzitu litezkeela askozaz merke-
ago, baino hori debekatuta dago.

Globalizazio honen emaitzak penaga-
rriak dira. Onura baino kalte gehiago ekarri
dio munduari, ingurugiroa suntsitu, demo-
kratizazio prozesu asko usteldu, kultura ba-
tzuk galdu, langabezia gehitu eta toki asko-
tan gizartearen kohesioa erruz ahuldu due-
lako.

Egoera tamalgarri honi aurre egiteko
ezinbestekoa da mundu mailako erakunde
demokratiko sinesgarri baten bitartez arau-
tzea munduko merkataritza, merkataritza
honek ez ditzan defenditu konpainia trans-
nazional eta banku handien interes partiku-
larrak soilik orain arte bezala, begibistakoa
baita merkatuak bere kasa utzita, arautu
gabe, ezin duela eraginkortasunik lortu.
Ekonomiak munduko gizateria osoaren zer-
bitzura egon behar du eta ingurugiroa sun-
tsitu gabe funtzionatu. Bestelako ekono-
miak ez dauka etorkizunik.

GARIAIAN GARAIOA

✓ Udazkenaren sarrerare-
kin bat, **erleak azken
txanpan ari dira lanean**,
are gehiago, ohitura denez
San Migelak aldera erlezai-
nak ezirik kendu badio. Be-
raz, hor izango dira negua
iristerako, geratzen zaizkien
loreetako zuku miresgarria
xurgatzen, batik bat huntza
eta txilarrarenak. Bestalde
eta hezetasun eta hotzetik
babestearren, zuhaitzetako
begietatik lortutako sustan-
tzia berezi batekin propole-
oa ekoizten dute, beren bi-
zi lekuei estankeidade edo
isolamendua eman asmoz.

✓ **Landareak beren urte-
ko zikloaren amaieran
daude**, fruita gehienak hel-
duak, jasoak, egun argiaren
murritzearekin hostoak ho-
rituaz, eroriaz... barruko
izardia gutxituz, geldotuz,
poliki-poliki negua pasa ar-
teko loaldira prestatzen ari
dira.

✓ **Iparraldean, hotza eta
janari eskasia nabarmen-
duz**, hemen datozkigu giro
epelagoetarantz, irudi geo-
metriko eta ordenatuak egi-
nez kurrilo, lertxun eta an-
tzarrak. Txolomak eta pa-
gausoak ere gure lurraldeak
zeharkatzen izango dira,
hego haizeari bularra ema-
nez, hala nola kontrako
bultzada saihesten, ahal
duten moduan, taldearen
babesa bilatuz, puntu bel-
tzez osaturiko lainoak sor-
tuz.


LIBURUA

✓ "El malestar en la glo-
balización" Joseph E.Sti-
glitz. Autoreak 2001eko
Ekonomia Nobel Saria jaso
zuen. Kupidarrik gabeko kri-
tika egiten dio indarrean
dagoen globalizazio eredu
honi, baina ekonomiaren
ikuspegitik.

Gerardo Garmendia 'Mozo', Gipuzkoako artzain aipagarria

"Artzaintzatik bizi ahal izateko beharrezkoa da gazta egitea eta bere itxura batean saltzea"

Legazpiko Artzain egunean, artzain aipagarrienaren saria jaso zuen Gerardo Garmendia zaldibitar artzainak. Artzaintzaren munduan ezohiko kasua da berea, baserriarekin eta artzaintzarekin inongo zerikusirik izan gabe, baserria erosi artaldean jarri eta horretatik bizi da.



Artzain aipagarrienaren saria eman dizue. Zer dela eta?

Saria ELE artzainen elkarteak ematen du. Orain arte saria emateko ardien produktibitatea, ematen duten esne kopurua bakarrik hartzen zuten kontutan eta urtero berdinek eramaten zuten saria. Aurten gauza gehiago kontutan hartzea erabaki dute eta niri egokitu zait.

Aralarko artzainetan ni naiz ELEn denbora gehiena daramana, gainera, hobekuntza genetikoan ere sartuta nago, Ordiziako gaztandegia ixtear zegoen eta bi sozioren artean aurrera atera dugu... dena hartuko zuten kontuan.

Genetika hobekuntzarekin zer lortu nahi duzu?

Esne gehiago ematea. Ardiei hazia jartzen zaie eta hortik

ateratzen diren urrixak aurrerako uzten dira. Ondoren kontrola egiten zaie amak baino esne gehiago ematen ote duten. Horrekin ardien sailkapena egiten da esne gehiena ematen duenetik gutxienean ematen duenera. Orduan saiatzeko gara esne gehiago ematen duten ardien umeak aurrerako uzten.

Hazitik garbia da, ahariak mehoratuak direla badakigulako. Baina horrek beste arazo bat ere badakar, morfologia aldetik ezberdinak baitira. Ardi jeikixamarrak, hanka meheak... itxura aldetik ez dira oso ardi egokiak. Ni pixka bat saiatzeko ari naiz morfologia hori zainduz ardiek esne gehiago ematea.

Berez hobekuntza genetikoaren barruan sartuta daudenak behartuta daude arkume-

en ehuneko altu bat intseminazio artifizialaren bidez izatera. Nik ez diet hainbeste jartzen, % 50-60 bati jartzen diet. Aralarren ni bakarra naiz hobekuntza genetikoan sartuta nagoena eta horregatik uzten didate horrela egiten. Gainera, ardia mendian ibiltzeko morfologiaz sendoa izatea beharrezkoa da. Larreak ere motzagoak dira eta hortzak oso kontutan hartu beharrekoak dira.

Alde handia al dago ardi batetik bestera, ematen duen esne kopuruan? Kalitatean ere bai?

Diferentzi handia dago bai ematen duten esne kopuruan. Hori bai, noiz eta esne gehiago eman, mehegoa ematen dute. Hori behiekin eta deneekin gertatzen da. Behietan hasita daude esnearen koipe eta

proteina kopuruak neurtzen. Baina, ardien kasuan zailagoa da, ardi guztien muestrak hartu behar dituzu eta 200 ardiri banan bana hartzea lan handia da.

Berrikuntza teknologikoak ba al dituzu?

Bai, jektzeko makinak eta gaur egun beharrezkoak dira. Ukuilua, berriz, orain dela 14 bat urte egin genuen eta harrezkero asko aldatu dira gauzak. Orduan ona zen baina gaur egun egiten direnekin alderatuz gero, borda zahar batetan geratu da.

Non izaten dituzu ardiak?

Uda Aralarren pasatzen dute, Igaratza inguruan. Neguan etxe inguruan ibiltzen dira eta herrian errentan hartzen ditudan beste terreno batzuetan.

Gazta berriz, Ordiziako gaztandegian egiten duzue.

Manu Otegi eta biok eramaten ditugu esneak, nahastu eta elkarrekin egiten dugu gazta. Lehen langilea geneukan eta hari jorrala ordaintzeko gazta asko egin behar zen eta horretarako esnea erosten genuen. Erositako esnea askotan zikina etortzen zen eta gazta partida asko hondatu egiten zitzaizkigun. Beti arrastaka ibiltzen ginen, horrela oso zaila zen aurrera ateratzea.

Argitarapen honen edizioak laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker

gizarte ekintza

Kaletik baserrira

Zu ez zara artzain familiakoa, ezta?

Ez, kalekumea naiz. Ikasketez elektrizista naiz eta hainbat lanetan aritu ondoren CAF-en sartu nintzen. Bulegoetan ez neukan lan txarra, baina, han barruan ez nuen etsitzen. Ordurako Aizporra baserria erosia genuen lau lagunaren artean eta ganadu ezberdinak genituen. Garai hartan esaten zen behin Europako Elkartean sartuz gero ardiak izango zirela egokienak. Horrelaxe ardi gehiago jarri, ukuilua egin eta lanean hasi nintzen. Orain dela 14 urte izan zen hori.

Damutu al zara emandako pausu horretaz?

Izaten dira errealdiak baina gustura nago. Hori bai, patxada handirik ez dugu izaten, leporainoko zorretan sartzen gara eta gero ezin buelta emanik ibiltzen gara.

Nola ikasi zenuen langintza berria?

Nire kontura ikasi nuen dena. Zalantzaren bat banuen neskalagunaren osabei galdetzen nien. Aralarren ere asko ikasi dut. Lehen ardiak mendian mozten genituen eta lan hori egiteko 6-7 artzain elkartzen ginen. Han beti ardi kontuez hizketan aritzen ginen eta



haiei galdetuz asko ikasi nuen. Baina maisurik hoberena beharra da, dudarik gabe.

Aralarko artzainek nola hartu zuten 'kalekume' bat beraien artean?

Ondo onartu ninduten. Orain esaten dute ez zutela pentsatzen iraungo genuenik.

Azkenean erabaki genuen gazta bion artean egitea, dena geure artean, horrela egin dugu aurtengo kanpaina eta gus-tura gaude.

Instalakuntza egokiak egongo dira Ordizian, erabili gabe geratzeko.

Hori da beste bat, pena zen prestatuta dagoen bezala egon eta ez erabiltzea. Guk gazta bi egunean behin egiten dugu eta bati baino gehiagori esan diogu libre egoten den egunean erabili nahi badu libre duela gatzandegia. Baina,

erosoagoa da gazta etxean bertan egin eta bertan edukitzea.

Guk, bere garaian, koope-ratibaren aldeko apustua egin genuen, eta ondo lan eginez gero oso egokia da. Baina, oso egoistak gara eta beti sortzen dira arazoak.

Gazta asko egiten al duzue?

Bion esnearekin 6.000 edo 7.000 kilo egiten ditugu. Aparte udaberrian, mendian, bakoitzak bere aldetik ere egiten dugu gazta.

Gazta ondo saltzen al da?

Merke jarritz gero bai. Batzuk azokaz azoka ibiltzen dira eta ondo saltzen dute, baina, guk horretarako ez dugu denborarik hartzen. Guk bezero finko batzuk baditugun arren gehiena banatzailearen bidez saltzen dugu. Beti ere merkexego eman beharra dago, baina, ez dugu beste era batetara egiteko denborarik.

Noiz izaten duzuen lanik gehien?

Erditzeen garaia izaten da okerrera. Azaroan hasi eta hilabete t'erdi bat oso txarra

izaten da. Gau guztia jaikitzen aritu behar, zer moduz dauden ikustera. Beti izaten da bakarren bat jaiotzeko arazokin eta lagundu beharra izaten da. Behin jezten hasiz gero, eguneroko martxan, eramangarriagoa da. Antzutzen diren garaian ere, belarra biltzen izaten dugu lana, nahiz eta aurtengo udan ez dugun aukera handirik izan.

Artzaintzatik nahiko txukun bizi daitekeela esaten da

Bai, bizi daiteke, baina, lana eginda. Bi lagunaren artean ondo, txandatu lan egiteko. Bakarrik egonez gero ezin zara etxetik atera, ezin jairik hartu, bazkariren bat baduzu ezin joan... Arratsaldean 5ak alde-rako etxean egon beharra du-zu.

Artzaintzatik bizi ahal izateko beharrezkoa da gazta egitea eta bere itxura batean saltzea. Bestela ez du dirurik ematen. Badira gazta ondo saltzen dutenak baina gaizki saltzen dutenak ere asko.

Aralarko artzainek badabilkizue nahiko arazo pistak direla eta ez direla.

Badirudi denak egitea ez dugula lortuko, ahal direnak egin beharko ditugu. Pistak behar bezala eginez gero kalte ekologikorik ez dela egiten diote, kalte bisuala bakarrik. Kalte ekologikoa izango baltz, neroni aurka egongo nintzen, baina, ez du egiten. Aralarrekiko jendeak duen kontzientzia hemen beheran bizitzeko bagenu, askoz ere poluzio gutxiago egongo litzateke.



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki) - 659 644 221 (Xabi)
Txindoki, 23 - 4. ezk.

ZALDIBIA

BIOK ALKAR
auto konponketa

ABS frenuetan eta injezioan
tailer espezialista

JAI ZORIONTSUAK PASA DITZAZUELA!

© 943 88 01 60

Mendi-Ondo

ZALDIBIA

Santa Fe jaiak Zaldibian

Urriak 4, ostirala:

19:00etan: Olalde baserritik herriko plazara Mondejuaren etorrera, herriko txistulari, Goiztiri I txaranga, Iztueta dantza taldeko dantzariak eta danbor joleekin.

Ondoren: Udaletxeko bal-koian Mondejuaren harrera eta txupinazoa.

20:00etan: plazan, mondejuak dastatzeko aukera.

23:00etan: Gailurrerantz ki-rol elkarteko pilota taldeak antolatutako Pilota partidua: Solarrain-Iparragirre Mendi-zabal-Gurrutxagaren aurka.

23:30ean: Dantzaldia 'Joselu Anaiak' musika taldearekin.

Urriak 5, larunbata:

Mozorro eguna:

10:30ean: Diana herriko haur txistulariekin.

12:00etan: Tolosako Dultzai-



neroekin erraldoien eta bu-ruhandien kalejira.

12:30ean: Ordiziako Lagun-tasuna Rondailaren saioa.

17:30ean: Pilota partidua. Lehen partidua: Galartza V. - Sukia Baleztana-Apeztegia-ren aurka. Bigarren partidua: Titin III - Goñi III Goñi II - Lasa III.

18:00etan: Haurren merien-da.

Ondoren Mozorrotuen jola-sak eta bukaeran haurren play-bac-a.

20:30ean: "Ez gaude denok. Preso eta iheslariak etxera." manifestazioa eta ekitaldia.

22:30ean: Bertso jaialdia: Alaitz Sarasola, Aitor Sarriegi, Estitxu Arozena, X. Silveira, Fredi Paia, Jon Maia.

23:30ean: Dantzaldia Laiotz musika taldearekin.

01:00etan: Play Back lehia-keta. Saria: Musika denda ba-tean erosteko bonoa. Mozo-rra lehiaketa. Saria lehenengo hiru taldeentzat izango da.

Urriak 6, igandea:

Santa Fe eguna:

Koadrilen eguna:

11:00etan: Meza Nagusia: bertsolariak, trikitilariak, dantzariak eta eskaintzak.

12:00etan: Iztueta dantza tal-dearen saioa.

13:00etan: Koadrilen irteera plazatik, Los Incansables txar-angarekin.

13:30ean: "Ez gaude denok, Preso eta iheslariak Euskal Herrira" Konzentrazioa plazan.

14:30ean: Bazkaria plazan.

Ondoren: Plazan, txarangak girotuta, koadrilen arteko jo-koak.

ARRESE
Jatetxea

Festa onak opa dizkizuegu

☎ 943 88 17 14 ZADIBIA

ESTANKO
taberna

Pintxo bereziak

Festak ondo pasa

☎ 943 88 28 65

Sta. Fe, 15 ZALDIBIA

MILA ARRANDEGIA

Sta. Fe jai zoriontsuak!

☎ 943 88 90 84

Sta. Fe Kalea ZALDIBIA

ZALDIBIAKO
UDALA

ZALDIBIKO
HERRIAK
HERRIKO JAIETAN
PARTE HARTZEKO
GONBITEA EGITEN
DIZUE

OXEPI

Garbitasunak

Jai zoriontsuak denoi!

☎ 607 140 721

ZALDIBIA

18:00etan: Herri kirolak: idi dema. Lasarteko Telleria eta Lezoko Olazarre.

19:15ean: 'Los navarricos' taldearen kanta saioa.

Arratsaldean, afal ordurarte: Kalejira Los incansables txarangarekin.

23:30ean: Dantza saioa Etza-
kit taldearekin.

Urriak 7, astelehena:

11:00etan: Meza nagusia.

12:00etan: Zezenak eta pottokak herriko plazan.

17:00etan: Haurrentzat Arrantzale Jolasak, Kulki taldearekin.

19:00etan: Trapu Zaharra taldearen eskutik 'Laugarren tenorea' kale antzerkia.

22:15ean: Karidadeko Ben-taren emanaldia. Bertsoak eta munduko musika.

Txozna batzordeko egitaraua

Urriak 11, ostirala:

18:00etan: Herri Kirolak.

Ondoren: Sukaldaritza Txapelketa: Entsalada eta albondigak.

Gauean: Sorpresa.


Urriak 12, larunbata:

16:30etan: autobusa irtengo da Donostiara, "Utzi Bake-an Euskal Herria! Alde hemendik!" lemapean egingo den manifestaziora joateko.

21:00etan: Herri afaria kantuz alaituta. Txartelak lehenbailehen erosi tabernetan.

Ondoren: Kontzertua: Zama, Folklore, Potrotaino.

Jaiekin amaitzeko: Mondeju entierro berezia.



Titin III - Goñi III Goñi II - Lasa III pilota partiduak

Punta-puntako pilota partiduak izango dira pilotalekuan urriaren 5ean, arratsaldeko 5,30etatik aurrera. Bi partidu izango dira. Batetik, Galartza V. eta Sukia, eta, Baleztena eta Apeztegiaren aurka; eta bestetik, Titin III - Goñi III Goñi II - Lasa III.

GUREA MERTZERIA (PEPITAN DENDA)

Arropa denda

- ◆ Emakume
- ◆ Gizon
- ◆ Haurrak

Txindoki, 23 ☎ 943 88 57 98 ZALDIBIA

ILLATI TABERNA

- Mondeju pintxo eta etxeko solomoa
- Ogitartekoak
- Afariak

Santa Fe ☎ 943 88 31 05 ZALDIBIA

NAZABAL ERRETEGIA

Otordu goxoak janez
lagunarteko giroa

☎ 943 88 71 46

Sta. Fe Kalea ZALDIBIA



JOXEPANE HERRI OSTATUA

Jaiak ospatu eta
falta direnak gogoan

☎ 943 88 20 47

Albisu Etxea ZALDIBIA

PILI Harategia

Mondejuetan berezitasuna

Santa Fe Kalea ZALDIBIA Tfnoa.: 943 88 28 68



LAZKAO-ETXE

- JATETXEA ASTEBURUETAN ZABALIK
- NEKAZALTURISMOA
- ➔ 4 logela, beren bainugelekin
- ➔ Gosari, bazkari eta afariak

☎ 943 88 00 44

Aiestaran erreka

ZALDIBIA

Gabiltza, Gipuzkoako artisauen elkartearen eskutik

Urriak 12 eta 13:

V. Artisaualdia, Ordiziako Majori kiroldegian

Gipuzkoako artisautzak Ordiziako Majori kiroldegia, izango du erakusleho nagusia, datozen egunotan. Urriaren 12an eta 13an, goiz eta arratsalde, 57 artisauen lanak izango dira ikusgai eta salgai. Gabiltza, Gipuzkoako Artisauen Elkartea da V. Artisaualdiaren antolatzailea.

Goizetan, 10,30etatik 2etara eta arratsalde 5etatik 8,30era artisau lan ezberdinak ikusteko aukera izango da urriaren 12an eta 13an Ordizian. 57 artisau izango dira guztira Majori kiroldegian. Horieta-tik 6 goierritarrak izango dira: Lazkaoko Pedro Casteloren ispiluak, Ordiziako Koki Hernandez De Pradaren zera-mika, Matximentako Iñaki Agirrezabalaren saskiak, Ordiziako Zorion Insaustiren ukendu eta kremak, Gabiria-ko Amalur enpresakoen al-tzariak eta Segurako Eugenio Elorzaren kandelak izango dira ikusgai eta salgai.

Gipuzkoako artisauak izaten dira Artisaualdiko prota-gonistak baina urtero Euskal



Herriko herrialde ezberdin bateko artisauak gonbidatzen dituzte. Aurtan, Iparraldetik, bost artisauagile etorriko dira Ordiziara.

Artisauentzat sariketa be-rezia izango da, posturik do-toreenarentzat: 150 euro, 90 euro eta 60 euroko sariak izango dira, Maxi Ordiziak emanak.

Tailerrak

Ekintza osagarriak izango dira asteburu osoan Majori kiroldegian. Besteak beste, zortzi artisau tailer izango dira haur eta gazteentzako. Zumezko otarregintza, gaz-tain otarregintza, pilotagin-tza, zeramika, egurra, lore lehor eta prentsatuak, kandelak, e.a. nola egiten diren ikasteko aukera izango da.

Erakustaldiak

Bi erakustaldi ere izango dira. Batetik, Zegamako ehun-gintza tailerrekoen erakus-taldia izango da, eta bestetik, Ibarako Aitor Bastarrika eta Alexandra N.Gomezaren es-kutik, tinte naturalekin egin-dako lanen erakustaldia.

Errekonozimendu saria

Hiru gizonezkori emango die Gabiltza Artisau Elkartea-ak errekonozimendu saria. Karmelo Urdangarin, Jose

M. Izaga eta Koldo Lizarral-deri oroigarri bana eskainiko zaie, antzinako lanbideen in-guruan argitaratu duten libu-ru bildumagatik.

Hitzaldia, urriaren 11n, Barrenan

Errekonozimendu saria jasotzeaz gain, dena den, ostira-lean, urriaren 11n, Ordiziako Barrena kultur etxean, arratsaldeko 5etan, lantxo bat izango du Karmelo Urdan-garin. Antzinako lanbide-en inguruan hitz egingo du.

Zozketak

1,30 euro kostako da Arti-saualdirako sarrera. Txartela gorde egin behar da zozketa bereziak izango baitira. Egu-nero, landetxe batean, bi per-sonentzako asteburuko ego-naldia zozketatuko du Eroski Bidaia-ek.

Bestetik, 12 euro edo gehiagoko erosketa egiten dutenei, sarreraren behera-pena egingo zaie.

Azkenik, 13 eurotik gora-ko erosketa egiten dutenen artean, Goierriko landetxe bateko egonaldia zozketatu-ko du Goiturrek. Azken ho-nek, Goierriko turismoaren informazioa banatuko du azokan.

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Promozioa: auto ordua 12 euro

Aita Urdaneta ORDIZIA
943 88 72 76

o s k a r b i
o i n e t a k o a k

Tel: 943 88 41 04 Tel: 943 88 19 44
kale Nagusia 34 BEASAIN kale Nagusia 25 ORDIZIA



www.zerain.com:

Zeraingo produktuak interneten salgai

Zeraindarrak aitzindari izan dira ekimen asko eta askotan.

Oraingoan ere horrelako beste proiektu bat aurkeztu digute: zerain.com.

Teknologia berrietara egokitu, bidezko merkataritza oinarri, internetaren bidez Zeraingo eta inguruetako hainbat eta hainbat produktu eros daitezke. Jakiak eta artisautza esaterako.

Zerain bere paisaia eta kultura oinarrituriko garapen jasagarria burutzeko lanean murgildurik dabilen herria da. Urteetan nekazaritza eta abeltzaintza oinarri hartuta, etorkizunari aurre egiteko tresnak ari dira sortzen etengabe. Horren adibide dugu, zerain.com denda birtuala.

Duela zortzi urte herriko eta inguruetako baserrietako produktuak eta artisautza saltzeko Mandioa denda zabaldu zen Zerainen. Orain, teknologia berrietara egokitu, beste denda mota bat zabaldu dute: zerain.com denda birtuala. 'Zerain' etiketa darman produktu multzo sendoa osatzen ari dira pixkanaka-pixkanaka.

Andoni Alustiza Zeraingo alkateak aurkezpenean adierazi zuenez, zerain.com denda berriaren ezaugarri garran-



Irailaren 27an Donostian egin zen zerain.com-en aurkezpena. Argazkian, Maria Angeles Iñurrategi artzaina, Asier Albisu Eusko Jaurlaritzako Nekazari eta Arrantza sailburuordea, Andoni Alustiza Zeraingo alkatea eta Aitziber Makazaga.

Zerain eta inguruko produktuak salgai

Hiru atal nagusi daude zerain.com web orrian. Batetik, jakiak erosteko aukera dago: Idiazabal gazta (ketua edo ketu gabea), sagardoa, indabak, Ibarrako piperrak, intxaurreak, hurrak, eztiak eta mermeladak. Goierriko artisauen lanak ere erosteko aukera badago. Besteak beste, saskiak, kaikuak, argizaiolak, esku pilotak, artilezko galtzerdiak eta Zeraingo oroigarria den eguzkia. Azkenik, hirugarren atal batean, bi lote berezi prestatu dituzte zeraindarrak: sagardotegiko lotea (gazta, sagardoa, intxaurreak eta sagar dultzea) eta Zeraingo oroigarriak (kamiseta, koadernoak, boligrafoak, katilua eta 3 pin). Erakusleia edo eskaparatea ere badu zerain.com-ek. Garaian garaiko produktuak azaltzen joango dira bertan.

Produktu bakoitzaren deskribapena, jatorria, sortze prozesua, erabilera, mantenimendurako aholkuak eta egilearen iritzia bildu dituzte zerain.com-en.

Aurrera begira, zeramika, egur lanak, kandelak, dultzeak, oreinen produktuak eta beste hainbat produktu sarean jartzea aurreikusten dute zeraindarrak.

tzitsuenak, "gure baserri-
rrengandik datozen kalitatez-
ko produktu desberdinak es-
kaintzeko garaian, bidezko
komertzioaren kontzeptua
erabiltzea da, baserriar

hauek zaintzen baitute gure
ingurumena. Teknologia be-
rriek eskaintzen dizkiguten
aukera desberdinak erabiliz,
bitartekaririk gabe eta mer-
katuko arau gogorretatik al-

dendurik, denda honek neka-
zari eta artisauen lana ahalik
eta ongien baloratu nahi du.
Pauso berri honekin Zerai-
nen lehen sektorearen etorki-
zunean lanean jarraitzen du-
gu, garapen jasagarriaren
bidez, gure paisaia eta berari
lotutako ondarea mantentze-
ko lanean jarraituz". Filoso-
fia honi helduz, 'Prezioak ba-
lio du' lema jarri diote ze-
rain.com web orriari.

Salmenta era berria

Garai berrietara egokitu, sal-
menta era berria prestatu dute
zeraindarrak. Horretarako,
aurretik ere Zerain Parke Na-
turalari buruz zegoen ze-
rain.com orriaz baliatu dira.
Beraz, denda birtuala gehitu
diote orain. Euskaraz, gazte-
leraz eta ingeles egin daitezke
erosketak.

Denda honen bidez, eros-
lea eta produzitzailearengana
zuzen-zuzenean iritsiko da,
tartean inolako bitartekaririk
ez dela. Gauzak honela, mun-
duko edozein lekutan egonda
ere, interneten nabigatuz,
erosi ahal izango dira Zeraingo
eta inguruetako produk-
tuak. Dena den, momentuan
behintzat, European mugatuko
dute banaketa zerbitzua.
Kontra errenboltso eta kredi-
tu txartel bidez egingo da or-
dainketa eta Nacex etxeare-
kin egindako hitzarmenari es-
ker, beranduenez, bost egune-
ko tartean, etxean izango du-
zue erosketa.

ZUZENKI
AHOLKULARITZA

Abokatuak
Enpresen
asesoria eta
gestioa

e txekin

www.txekin.net

Etxebizitzaren salmenta:

Legorreta
Beasain
Orendain

Tel/Faxa: 943 162 393 e.posta: zuzenki@euskalnet.net Elosegi, 16 LAZKAO

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarreko, pintxoak



943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN

Ordizian kokatuko da Goierriko ordezkaritza

DYA Goierriin

railaren 16an sinatu zuten hitzarmena Ordiziako Udalak eta Gipuzkoako DYAk. Hitzarmen horri esker, Goierri bertatik, goierritarrei DYAren zerbitzua eskainiko zaie. Momentuan, anbulantzia bat izango da goierritaren zerbitzura. Edozertarako dela ere, 943 46 46 22 telefono zenbakia hortxe dago.

Orain dela urtebete pasa hasi zen DYA Ordiziako Udalarekin harremanetan. Festetan, azoketan... prebentzio zerbitzuak eskaintzetik hasita, elkarlanean hasi ziren bi erakundeak. Hortik sortu zen Goierriin ordezkaritza bat irekitzeko aukeraren azterketa lana.

Esan eta egin. Irailaren 16an sinatu zuten DYAk eta Ordiziako Udalak hitzarmena. Ordizian, Aita Urdaneta etxaldean izango du DYAk egoitza. Ordiziatik Goierri osora zabalduko da DYA. Orain arte Gipuzkoan 11 ordezkaritza zituen DYAk, herri eta eskualde ezberdinetan. Goierrikoa 12.a da. "Aurretik saiakeraren bat edo beste egina zegoen baina ezerezean gelditu zen. Oraingoan orde, bai", esan digu Joxepo Artola, DYako arduradunak.

Hitzarmen honetatik abiatuta, Goierriin beraien zerbitzua eskaintzea da DYAren helburua. Zerbitzu sozialak, babesgo zibila... Anbulantzia bat izango da, momentuan, goierritarren eskura. Edozein larrialdi dela, 943 464622 telefono zenbakia dago edonoren esku.



Sorospen ikastaroa urriaren 7tik aurrera

Gipuzkoako DYAk bere helburu nagusien artean osasun zaintza kate osoa defendatzen du eta besteak beste, behar-beharrezkotzat jotzen du osasun ezagutza eta hezkuntza, batez ere lehen laguntza arloan. Honetarako sorospen eta lehen laguntza ikastaroak antolatzen ditu.

Aipatu ikastaroa, lehen laguntzan ezagutza lortu nahi duen guztiei zuzendua dago. Lehendikako inongo ezagutzarik beharrezko ez da.

Ikastaroa Euskal Herriko Unibertsitateak errekonozitzen du aukera libreko kredituak lortzeko egitasmoaren barruan, beraz, unibertsitate honetako ikasleentzat ere onuragarri izan ahal da.

Ikastaroa Gipuzkoako DYAren Osasun Hezkuntza Eskolako osagile, erizain eta irakasleek zuzendu eta emango duten ikasketa teoriko-praktikoko 27 ordu lektiboz osatua dago.


Klaseak Ordiziako Kultur Etxean izango dira, 19:30 etik, 21:00etara, urriaren 7an hasita. Bukatu, azaroaren 5ean bukatuko da.

Ikastaro honen bukaeran gaitasun froga teoriko-praktikoa gainditzen duen guztiak, ikasketa hauek gainditu dituela adierazten duen diploma bat lortuko du.

Berri gehiago jakin nahi izanez gero edo izena emateko deitu Gipuzkoako DYA ra 943/464622 edo korreo elektronikoz zerbitzuak@dyagipuzkoa.com

Goierriko boluntarioekin osatu nahi du DYAk Goierriko ordezkaritza. Bolondres izateko bi aukera ezberdin daude: batetik, gidatzeko baimena eduki eta anbulantzia gidaria izan; eta bestetik, sorosle lana egin. Azkeneko lan honetarako, Lehen Laguntza-ko hilabeteko ikastaro bere-

zia antolatu du DYAk urriaren 7tik azaroaren 7ra, iluntzeko 7,30etatik 9,30etara. Informazio zehatza goiko koadroan duzue. Ikastaroari buruzko informazioa jaso edo izena emateko, 943464622 telefono zenbakia duzue eskura. Ikastaroa hasteko aste-bete falta zela, dozena bat la-



Joxepo Artola.

gunek dagoeneko izena emana zeukaten eta gustura zeuden DYako ordezkariak. Izan ere, DYakoek jakin bai baitakite, boluntarioak harrapatze-ko garairik onena ez dela. "Hala ere berriz ere pizten ari ote den susmoa dut. Urte batzuk oso txarrak izan dira", dio Joxepo Artolak.

Behin ikastaroa eginda, azaroa aldera inauguratuko dute Goierriko ordezkaritza.

Orain Goierriko gainerako udalekin ere harremanetan hasiko da DYA, beraien zerbitzuen berri eta abar eman eta eskainiz.

Goierriin Gurutze Gorria ondo txertatuta dagoen honetan, DYAk Goierriin lekurik ba ote duen galdetu diogu DYAren arduradunari. "Gurutze Gorria eta DYA gaizki konpontzen direnaren ustea dago. Baina ez da horrela. Garai batean egongo zen nolabaiteko konpetentzia bat baina gaur egun dena ahaztuta dago. Guztiontzat lekua dago Goierriin. Goierrirentzat eta goierritarrentzat gainera aberasgarria izango da".


**Kanaloiak
Bajanteak
Fatxadak**

...



**Pintura
Teilatuak
Tximiniak**

...



Tfnoa.: 605 712 018

Ezkurdiategi Etxea

ATAUN



TEL.: 943 085 577

FAXA: 943 085 578

NAFARROA ETOR., 19

BEASAIN



- FOTOKOPIAK TXURI BELTZ ETA KOLORETAN INPRESIO DIGITALEAN
- PLANOEN INPRIMAKETA
- ENKUADERNAKETAK
- PLOTTER ZERBITZUA
- PLASTIFIKAZIOAK
- FAX ZERBITZUA
- PAPER SALMENTA



URBEGIKOPIAK

urbegi2@euskalnet.net



ARMAZOIRIK
GABEKO
BETAURREKOAK

49

€ TIK HASTIA

MODELO DESBERDIN UGARI,
PREZIO BAKARRA



BONARDI
ARMAZOIAK

25 €

MULTIOPTICAS

beti zurekin



BERGARA
Tel. 943 76 15 75



ARRASATE
Tel. 943 79 29 95



ORDIZIA
Tel. 943 88 99 88



EIBAR
Tel. 943 20 05 22



ERRETERIA
Tel. 943 51 78 11



orkli, s.coop.



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 80 50 30 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 16 08 23

Hodei Galarraga gaztea hil da

Irailaren 23ko gauean Bilbo-ko Basurtu auzoan izandako leherketan Hodei Galarraga Irastortza hil zen, 22 urteko gazte zaldibiarra. Harekin batera, 28 urteko Egoitz Gurrutxaga Gogorza erreteriarra zendu zen. Leherketaren ondorioz bi gorpuk txiki-txiki eginda gelditu ziren, eta hurrengo egunean, irailaren 24an, baieztatu zen hildako bat Hodei Galarraga zela. Aldean zeraman nortasun agiri faltsuaz baliatu zen Herri-zaingo Saila egitate hori baieztatzeko. Hurrengo egunean eman zuen Herri-zaingo Sailak Egoitz Gurrutxagaren izena. Hau ere aldean zera- man nortasun agiri faltsuaren bidez identifikatu zuten.

Berri hori hedabideen bidez entzun eta berehala, aste-arte arratsaldean, Galarraga- ren senideak eta herriko beste hainbat lagun Bilboko Auzi-Institutura joan ziren Hodei- ren gorpuzkinak ote ziren baieztatzerara. Zenbait senitar- tekok gorpua ikusi zuten, eta leherketaren ondorioz ezagu- tzeko moduan ez bazegoen ere, nahiko argi geratu zen hildako bat Hodei Galarraga zela.

Hodei Galarraga 1980ko otsailaren 9an jaio zen Zaldi- bian. Herrian oso ibilia, herri mugimendu anitzetan aritua, herritar ororen ezaguna eta laguna, diotenez, dinamikoa eta zorrotza. Egiten zuen oro- rekin konpromiso handia era- kusten zuen gazteak. Herriko Eskolatik Ordiziako institutu- ra joan zen ikastera, eta ikas- le garaiko azken bost urteak Goierriko Lanbide Eskolan egin zituen. Bost urte haietan

ikasleen ordezkari eta bozera- maile izan zen. Eskolan beza- laxe zen herrian hainbat eki- menetan parte-hartzailea. Gazte Taldean orduak egin zituen 1994az geroztik, baita futboleant, errugbian eta he- rriko txaragan, kirolzalea eta musikazalea baitzen, eta mendizalea, eta eskalatzailea. Inguruko bazter menditsuak eta harkaitzak ongi ezagutzen zituen. Galarraga iazko abuz- tutik falta zen etxetik eta po- liziak "Buruntza Komando- ko" laguntzaile izatea lepora- tzen zion.

Greba Orokorra eta Osoko bilkura

Egoera horren aurrean, Greba Orokorra deitu zuen Zaldibia- ko Ezker Abertzaleak asteaz- kenerako, irailaren 25erako. Deialdi horrek egundoko ja- rraipena izan zuen, komertzio guztiak eta lantegi gehienak (bi izan ezik) itxita zituela es- natu baitzen Zaldibia. Isilta- suna zen nagusi herrian, So- rozabalen hileta martxa bai- tzen entzun zitekeen doinu bakarra. Kale eta etxeetako balkoietan ikurkinak krespoi beltzekin ikus zitezkeen, uda- letxeko balkoi nagusiaren an- tzerara. Eguerdian manifesta- zioa egin zuten 300 bat lagu- nek. Ertzaintzaren lau furgon- eta agertu ziren bertara, eta zertan ari ziren galdezka in- guratu zitzaizkienean, Hodei Galarragaren aitak erantzuki- zuna bere gain hartzen zuela esan zien ertzainei.

Arratsaldean udal batzarra egin zen udaletxeko balkoian, herritarrek balkoian zeuden artean. Batasuneko bederatzi zinegotziek aho batez onartu



zuten herri batzarrak aurkez- turiko mozioa. Hodei Gala- rraga eta Egoitz Gurrutxaga- ren senideei eta lagunei "do- lumin sentikorrenak" adie- raztea, udaletxean ikurrina krespoi beltzarekin masta er- dian jartzea eta elizkizuna egin bitartean dolu egunak izendatzea, Galarraga Zaldi- biako Seme Kuttun izenda- tzea, bere heriotzak sendiari sortu dizkion gastu ekonomi- koak bere gain hartzea eta os- tegun arratsaldeko 7etarako plazan elkarretaratze isila deitzea erabaki zuen Udalak. Bide beretik, "Euskal Herri- ri herri bezala dagozkion es- kubideak" aldarrikatu zituen Udalak, eta "Euskal Herri- ren hitza eta erabakia aldeko bideari ekiteko" deia egin zuen.

Erabaki hori dela eta, Do- nostiako Fiskaltzak kereila jarri zuen hurrengo egunean Zaldibiako Udalaren kontra, Jesus Cardenal Estatuko fis- kal nagusiak hala eskatuta. Luis Navajas Donostiako fis- kalburuak "terrorismoa go- raipatzea" eta "diru publiko- en erabilera bidegabea" egi- tea leporatu zion Zaldibiako Udalarari. Tolosako Epaitegian jarri zuen kereila, eta kasua Espainiako Auzitegi Nazio- nalaren esku uzteko eskatu, "terrorismo delitua izango li- tzatekeelako". Espainiako Zi- gor Kodeko 578. artikuluan oinarritu zen Navajas; horren arabera, "terrorismoa jendau-

rrean goraipatu edo arrazoi- tzen" duenak edota "terroris- moaren biktimentzat umilia- garri diren ekintzak" buru- tzen dituenak urtebete eta bi urte bitarteko kartzela zigorra jaso dezake.

Gorpua erraustu eta azken agurra

Inork ez zekien Hodei Gala- rragaren gorpuzkinak noiz emango zizkieten sendiari. Hala, ostegunean zein ostira- lean, Gudari egunean, zenbait mobilizazio egin ziren he- rrian, eta abokatuen deiaren zain jarraitzen zuen sendiak. Larunbat goizean, hilak 29, joan ziren senideak eta herri- ko hainbat lagun Bilbora Ga- larragaren gorpua bila. Gorpua eguerdian atera zuten Bilboko Auzi-Institututik eta 13:20 inguruan iritsi zen Erreteriarra. Egoitz Gurrutxaga leherketa berean hilda- ko erreteriararren etxearen aurrean, dantzariak aureskua dantzatu zioten. Hilkutxa biz- kar gainean eraman zuten beilatokira, han errauts zezat- ten. Atzean Galarraga eta Gu- rrutxagaren senideak zeuden. Ehunka lagunek jarraitu zie- ten. Arratsaldeko 16,30ak al- dera, Galarragarren errautsak Zaldibiara iritsi ziren, ehunka lagun zain zitu zela. Igande arratsaldean azken agurra es- kaini zioten Zaldibian Hodei Galarraga Irastortzari.

*Inaki Gurrutxaga
Saroi Jauregi*

Kultur asteko kontuak

Hilaren 22an Feri Ekologi-koarekin amaitu zen kultur astea, aurtengoan ere arrakastatsua izan zen, gai denek sortu zuten nahiko arreta, bai-
na bakarren bat azpimarratzeko-
kotan Pello Zabalak "Eguraldiaren gorabeherak" gaiari eman zuena eta ostiralean Koke Lasak, Ghangtok, mendiko diapositiba emanaldiak aipatuko nituzke, izan ere bi egun hauetan, gela txiki gel-
ditu zen.

Feri ekologikoa

Feri ekologikoa, berriz, egita-
rauak ondo esaten zuen beza-
la feria baino gehiago izan
zen, izan ere bertan zeuden
erakusketa eta tailerrak, fe-
riak hainbeste jende bildu zu-
ten. Aurtengoan ere jende ko-
puru bikaina bildu zen Ze-
raingo plaza inguruan, batzuk
erosketak egiten eta beste as-
ko gainerako ikuskizunez
gozatzen.



Arratsaldeko erromeria
ere giro ederrean egin zen,
erroskilerok izan zuen bene-
tako arrakasta eta bere ingu-
ruan jende asko biltzen zen
zozketa egiten zuen bakoitze-
an.

Txondorra

Irailaren 16an su eman zi-
tzaionetik eta hamar egun su-
tan egon ondoren hilaren

KZ Gunea

Eusko Jaularitzaren konektatu zaitez programaren 2. fasean,
hau da, formazio programan, Zeraingo Udalak antolatuta
ikastaroak izango dira kultur etxean urriaren erditik aurrera.

Ikastaro bakoitzak 20 orduko iraupena izango du gutxi
gora behera, bi txanda egingo dira, bat goizez eta bestea
arratsaldez. Horretarako 8 ordenagailu ekarriko dira eta ho-
rietatik 4 bertan geldituko dira jendeak erabili ditzan.

Ikastaro hau helduentzat zuzendua da eta dohanik izango
da, bertan parte hartu nahi duenak hilaren 15a baino lehen
izena eman behar du Udaletxean.

Mari Flor Mendizabal



26ko egunsentian atera zen
ikatz, 1.600 kilo pasatxo
atera dira txondor honetan.

Ikatz hau herritarren arte-

an saldu da eta gelditu den
guztia Liztormendi Elkartek
erosi du.

V. ARTI/AVALDIA

GIPVZKOAKO ARTI/AVON AZOKA

ORDIZIA

URRIAK 12-13

MAJORI Kiroldedia

Ordutegia:

10:30-14:00 17:00-20:30

www.artisaualdia.com

Antolatzaileak



Babeslea



Laguntzailea



F.M. 89.2

EGUNEKO 24 ORDUAK ZUREKIN



KZgunea urriaren 16tik aurrera

Iritsi da Zegamara ere KZgunea. Kultur Etxeko gela bat egokitu da horretarako eta bertan 8 ordenagailu jarriko dira zegamarrek internetaren erabilera ikas dezagun. Ikastaroak pertsona helduentzat daude bideratuak, langile, jubilatu eta batez ere inoiz internet erabili ez duenarentzat. Gaurko egunean gero eta gehiago erabiltzen ditugu interneten jarritako zerbitzuak eta etorkizunari begira, urratsak hortik joango direnez, guztioi komeni zaigu bere erabilera eta berak guri eman diezazkigun abantailak eza-gutzea eta erabiltzea.

Bertako arduradunek adierazi dute ez dela beharrezkoa inongo ezagutzarik izatea ez ordenagailuz eta internetez ere. Beraz, urriaren

16tik aurrera joan zaitez Kultur Etxeko KZgunera matrikula egitera. Ikastaroak dohainik izango dira.

Erlajazio ikastaroa

Izenematea bukatzeaz dagoenez eta ikastaroa berehala martxan jarri asmoz, datorren astean izena emandakoekin bilera egitea erabaki da. Bertan ikastaroa zein egun eta zein ordutan eman erabakiko denez izena eman dutenak bertara joatea komenigarria da. Bilera urriaren 8an izango da arratsaldeko 6etan Liburutegian.

Tartalon mus txapelketa

Urriaren 4an izango da Tartalo Elkarteko IX. Mus txapelketaren finala, gaueko 9,30etatik aurrera.



Ehungintza tailerra Artean

Joan den hilean Arteara joan ziren Zegamako Ehungintza Tailerrekoak. Besteak beste beraien lanak eta lanerako erabiltzen dituzten telarrak eraman zituzten bertan ikus zitzaten; ferian hainbat sariketa desberdin zeuden eta horietako bat "stan"aren muntaiaren sariketa zen eta Ehungintza Tailerrekoak 3. saria jaso zuen. Zuk ere tailerrean zein lan egiten den jakin nahi baduzu, aukera ezin hobea duzu Zegamako Kiroldegian 3. solairuan dagoen tailerrera bisita egin dezakezu, asteburuero irekita baituzu. Zapatu eta igandetako ordutegia: goizez 11:00etatik 14:00etara eta arratsaldeaz 16:00etatik 19:00etara.

Palestinari buruz hitzaldia


Datorren urriaren 9an, Thamer Birawi palestinarra izango dugu Kultur Etxean bere herriari buruzko hitzaldi eta diapositibak botatzeko. Ordua 19:30etan.

Kilometroak Urretxun

Igandean izango da aurten Kilometroak 2002 Urretxun eta, lineako autobusa eta tren erabiltzea gomendatu dute antolakuntzatik.

Edurne Albizu

IBAI ONDO



ARROZTEGIA

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

Altzariak neurritan

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47

Poltsikoko telefonoa: 639 631 640

Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

ZUHAIZKI

S. A. L.

ZURGINDEGIA



✕ LEIHOAK, ATEAK eta abar

✕ ESKAILERAK NEURRIRA




Cuatrovientos Industrialdea, 1

Txarama Auzoa

20491 LEABURU

Tfnoa.: 943 67 36 11

Faxa: 943 67 36 55



MUJKA

LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19

☎ 943 88 11 94

ORDIZIA

Haurrentzat euskal dantza ikastaroa

Aurten ere iaz izan zuen arrakasta handia kontuan izanik, Guraso Elkartearen ekimenez eta herriko udalaren laguntzaz, haurrentzat euskal dantza ikastaroa antolatu da. Dantza ikastaroa larunbatetan kultur etxeko aretoan burutuko da. Ikastaroa aurrera eramateaz eta haurrei dantzak erakustiaz arduratuko direnak Beasaingo Aurtzaka taldeko dantzariak izango dira.

Izena emateko orriak Guraso Elkartetik banatu eta jasotzeko direnez, dagoeneko haur gehienek ikastaroan parte hartzeko beraien izena emana dute. Dena den oraindik norbaitek ikastaroan parte hartzeko nahia izanez gero, nahikoa duzue Guraso Elkarteko kideren bati adieraztea.

Haur bakoitzak ikastaroan parte hartzeagatik kuota moduko zerbait ordainduko du: hiru hilabeteko, 24 euro. Gainerako gastuak ordaindu ahal izateko Udalaren dirulaguntza izango da.

Eskulan ikastaroa

Aurten ere antolatu da eskulan ikastaroa. Bertan nahi duzuen guztiek parte hartu dezakezue. Ikastaroa astearte goiz eta arratsaldean izango dira. Irakaslea, berriz, orain arte bezala Carmen Soto izango da. Argibide gehiago nahi duzuenok edo ikastaroan hasteko asmoa duzuenok asteartean Kultur etxeko liburutegira hurbil zaitezke.

Odol-emaile elkartearen eskertza

Irailaren 26an burutu zen azken odol ateratzea herriko mediku kontsultorioan, aurten burutzen den bigarrena. Lehenengoa otsailaren 26an burutu zen eta orduan 60 odol-emaile bertaratu ziren. Azken odol ateraldian berriz, 61 izan ziren. Horietatik 6

Giro ona San Migel ospakizunetan

Iraileko azken asteburuan burutu ziren San Migel ospakizunak giro oso onean ospatu ziren. Eguraldiak bikain lagundu zuenez egun guztian zehar ospatu ziren ekintzetan herritarren partaidetza handia izan zen.

Goizean jokatu ziren helduentzako jokoetan partaidetza handia izan zen, lehenengo toka lehiaketa jokatu zen. Juan Carlos Diez izan zen irabazlea, eta bigarrena, Joxe Izagirre.

Jarraian harrikalari txapelketa burutu zen Berjalegiko zelaietan. 2,080 kiloko harria urrutien jaurtiki zuena Xabier Lasa izan zen. 24,70 metrora bota zuen. Bigarren postua Unai Etxarrik lortu zuen, 23,90 metrora botatzen.

Arratsaldeko lehen orduetatik mus txapelketa jokatu zen. Haurrentzako jokoak, ikuskizuna eta txokolate jana ere izan ziren. Larunbateko ekitaldiei amaiera eman ziena herri afaria izan zen eta bertara jendetza handia hurbildu zen.

Igandean, berriz, mendi bizikleta proba burutu zen herrian zehar osaturiko zirkuitoan.

gainera, odol-emaile berriak izan ziren. Aurten guztira, 121 odol ateratze burutu dira eta horietatik 16 lehenengo aldiz odola ateratzera hurbildu ziren.

Oraingo odol ateratzean ere Ellosegi ardotea, Murua harategia, Deba harategia eta Iñaki Autoserbitua, Euskadiko Kutxa, Lazti garraioak, Medikuntza kontsultoria eta Udala izan zituzten laguntzaile. Beraz, aipaturiko guz-

tiei elkartearen izenean eskerrik beroena, baita odol ateratzeetan parte hartu duten odol-emaile guztiei, bai herritar eta baita Gabiria eta Ezkio-Itsasotik hurbildutakoei ere.

Ur eta zabor errezioben ordainketa

Gipuzkoako Ur Kontsultorioak, Ormaiztegiko abonatuak jakinarazi nahi dizue, 2002. urteko bigarren hiruhilabeteko ur eta zabor errezioboak borondatez ordaintzeko epea urriaren 4an bukatzen dela. Edozein erreklamazio edo argiketarako 902 30 22 22 telefono zenbakira deituz egin dezakezue.

Aitziber Murua

Jubilatuen eguna

Urtero ohi bezala aurten ere jubilatuen eguna prestatu dute. Datorren urriaren 13an ospatuko dute jubilatuek beraien eguna. Eguneko ekitaldiei hasiera 12:00etan hildako elkartekideen alde Ormaiztegin ospatuko den meza nagusiak emango die. Ondoren 13:45etik aurrera Lierniko Mujika jatetxean bazkari batean elkartuko dira. Bazkarira joateko elkartetik autobusa izango da.

JAUREGI
TOLDOAK s/l

Tfnok.: 943 88 02 43
943 88 01 33
BEASAIN

Autowag, s.a.



☎ 943 888 254 943 888 266 Faxa: 943 888 105
N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

Zuk... Zein erantzun emango zenieke hurrengo egoerei?

1. Goizeko hirurak dira. Zure kotxearekin zoaz errepide komarkal batean eta bihurgune baten ondoren kotxe bat aurkitzen duzu, errepidetik atera eta arbola baten kontra jo duena. Zer gertatu den ikustera geldituko zinateke?


A ☐ **Ez.** Abiadura arindu eta bertatik joango naiz: istripuak ikusteak zori txarra dakar, hontaz gain seguru asko beste norbait bertatik pasa eta zauritua ospitalerako bidean izango da honez gero.

B ☐ **Bai.** Neure kotxea gelditu eta istripu gunea eta neure kotxea ere larrialdi triangeluekin senalizatu ondoren, istripua izan duen ibilgaluarengana hurbilduko naiz, gidaria ondo dagoen ikustera bestela laguntza eskatzeko.

2. Zure aurrean motor baten gidariak erori ondoren ezpaloia ertza jo du buruarekin. Laguntzen saiatuko zinateke?

A ☐ **Ez.** Hoberena lehen bait lehen bertatik alde egitea da, bestela seguru poliziak (ertzantzak) lekuko bezala testigantza eman dezan geldiaraziko nautela. Seguru ere nik baino gehiago dakien norbait bera zaintzeaz arduratuko dela.

B ☐ **Bai.** Telefono mugikorrarekin laguntza eskatuko dut, nere berokiarekin estaliko dut eta berarekin hitzegingo dut esna jarrai dadin anbulantzia heldu artean.



3. Lasai paseatzen ari zarela zure aurrean neska bat guztiz zorabiatzen da. Laguntzera hurbilko al zinateke?

A ☐ **Ez.** Ezer egin gabe begira geldituko nintzateke, zerbait gaizki egin eta ezer txarrik gertatuz gero errua neri egotziko didaten beldur naiz.

B ☐ **Bai.** Konorterik duen ziurtatzera hurbilduko nintzateke, larrialditarako zerbitzua jakinaren gainean jarriko nuke eta, etorri bitartean, erreanimazio teknikak erabiliz berpizten saiatuko nintzateke.

4. Zurekin erlazio haundirik ez duen, bakarrik bizi den adin luzeko bizilagun batek, gaixorik dagoenez botika bat hartzeko hiru orduero esnaraziko duen norbait behar duela eta, bere etxean gaua pasa dezazun eskatzen dizu... ¿Egingo al zenuke?

A ☐ **Ez.** Ahal dudan disimulo guztiarekin "nahiko nukela baina guztiz ezinezkoa zait" esango nioke, zeren hain justu gau horretan herriaren (hiriaren) beste aldean bazter ezinezko hitzordua egina dut.

B ☐ **Bai.**

Gipuzkoako **DYA**^k

Ordizian antolatu behar duen "Lehen Laguntza" ikastaro egin nahi dut.

Data: **Urriaren 7** tik, **Azaroaren 7** ra.

Ordutegia: **19.30** etatik, **21.30** etara.

Argibide gehiago ondoko telefonoan

943 46 46 22





Jubilatuen eguna

Herriko erretiratuen omenez udalak antolatzen duen eguna urriaren 13an izango da, igandean. Hamabietako meza nagusiarekin ekingo zaio ospakizunari, eta irteeran dantzarien saioa izango dute ikusgai. Lagun arteko bazkaria Osinalde elkartearen egingo da, eguerdiko ordubietan. Bazkal ondoan, berriz, festa giroa jarritz trikitilariak eta bertsolariak arituko dira. Aurtengo omenduei ere bertan emango zaizkie oroigarriak.

Bazkarira joateko asmoa duenak aurrez izena eman behar du, udaletxera deituz (943 88 07 34).

Bola txapelketa

Bederatzigarren urtera iritsi da Osinalde elkarteak antolatzen duen probintzi mailako bola txapelketa. Jaietatik aparte egiten den sariketa bazkarra bihar, urriaren 5ean, izango da jokoan udal bolatokia.

Parte hartzeko arratsaldeko 4,30etatik 6etara bitartean

Parrokiaren ekimenak

Bi ekitaldi antolatu zituen elizako batzordeak irailaren azken bi igandeetarako. Batetik, joan den irailaren 22an organu kontzertua eskaini zuen Fernando Gonzalo organujoleak Gabiriako elizan. Organuaren errestituzio eta konponketa lanak amaitutzat eman ondoren emaitzaren berri ikusteko baliotxo izan zuen emanaldiak.

Bestetik, urteroko usadioan, Arantzazura errromesaldia ere eginak dira, pasa den irailaren 29an. Igandean bertan autobusez joan ziren egun pasa, eta larunbatean oinez egin zuten bidaia zenbaitek.

eman behar da izena. Edizio honetan ere sari ugari eta mardulak ipini dira, hala nola, sailkapen orokorreko lehenengo bostentzat, herritarrentzat eta gazteentzat diru-

sari, garaikur eta bestelako opariekin hornituta. Irabazleak txapela bururatuko du, eta gazteetan lehenak Etxahun saria.

Aimar Maiz



Mendikoiko autobusa

Pasa den astean izan dugu herrian Mendikoiko autobus ibiltaria, irailaren 24tik 27ra bitartean hain zuzen ere. Teknologia berrien gela bat da eta Euskal Herriko nekazaritza inguru batetik bestera dabil, modu erraz batean ordenagailuari eta internetari beldurra kentzeko. Autobuseko 5 ordenagailu horien bidez, internet, bideokonferentziak, teletxikilantzia, posta elektronikoa eta abar zer diren ezagutzeko aukera izan dute herriko gazte nahiz helduek.

Jubilatuen bidaia

Aurreko urteetan bezala, aurtengo ere jubilatuen bidaia antolatu du herriko jubilatuen eta Udaleko Gizarte zerbitzuak. Aurtengoan goiz partean Hernaniko Txillida-leku bisitatuko da eta ondoren bazkari goxoa Orion. Bazkaldu ondoren kostaldean bidaiatxo bat egingo da. Urriaren 5ean egingo da bidaia eta Mutiloko autobus geltokitik goizeko 9etan abiatuta.

Iñaki Ugalde

Gimnasia ikastaroa

Gimnasia ikastaroa martxan jarri nahi da herrian, astean bi egunetan, astearte eta ostiralean, arratsaldeko 7,30etatik 8,15etara. Izena emateko epea bukatuta dagoen arren, norbaitek interesa edukiko balu, udaletxera joan besterik ez du ohiko ordutegian.

Gripearen aurkako txertoa

Gripeari aurre egiteko txertoa hartzeko kanpaina abian da, irailaren 15etik urriaren 31a bitartean. Komenigarria omen da 65 urtetik gorakoek edo gaixotasun kronikoren bat dutenek hartzea. Informazio gehiagorako medikuarengana joatea besterik ez dago.

KZ Gunea: ikastaroak dohainik

Beasaingo KZ Guneak urrira-ko dohaneko ikastaroak antolatu ditu. Ordutegi malguak izango dituzte eta goiz eta arratsalde izango dira.

- **Teknologi berrien ikastaroa.** 16 urtez gorakoentzat. Esamin eguna urriaren 25ean arratsaldeko 5etan.

- **Interneten nabigatzeko hastapen ikastaroa.** Ikastaro hau berezia da, 55 urtetik gorakoentzat.

Asmubeko emakumeentzat ere egitarau bereziak daude prestatuak. Bata Interneteko

ko hastapenetakoa eta bestea sakontzekoa izango da.

Ohiko ikastaroekin ere jarraitzen dute KZ Gunean. Interneten nabigatzeko sarrera ikastaroa, sakontze ikastaroa eta praktikatako ikastaroa. 'Zure PCa konfiguratzen', 'Zure asteburua antolatzen' edo 'Banca on line' moduko praktikak egiteko ikastaroa.

Argitasun eta izenak emateko, KZ Gunean, Oria Pasealekuko 12an edo telefono zenbaki honetan, 943 160147.



Babes Ofizialeko etxebizitzaren zozketa

Udalak bultzaturik, Beasainen eraikiko dituzten Babes Ofizialeko 40 etxebizitzaren zozketa irailaren 28an egin zen notario eta jendaurrean. Indarren orube zaharrean eraikiko dituzte eta 2 urteko epean entregatuko direla aurreikusi dute. Udalak, Beasain Lantzen SA udal-sozietatea sortu zuen, etxebizitzak, bizitegi eta industriarako lurzorua, pabiloiak eta abar hirigintzaren alorrean kudeatzeko tresna gisa. Orain, etxebizitza hauek erosteko hautatuak izan direnek kooperatiba bat eratu beharko dute Babes Ofizialeko 40 etxebizitza hauek eraikitzeke. Neurri desberdineko etxeak izango dira eta prezioak 8 eta 15 milioi bitartekoak izango dira.

Bi haur edo gehiago dituzten familiei dirulaguntzak

Udaletik jakinerazi dutenez, bi haur edo gehiago dituzten familiei emango zaion dirulaguntza eskaerak egiteko ez dago jada Donostiara joan beharrik, Herriarren Informazio Bulegoan egin daiteke.

Nekane Altuna

Argazki lehiaketa

Peña Belokik eta Argizpi Argazkizale Elkartek Beasaingo udalaren babesarekin antolatu dute 3. Argazki lehiaketa Peña Beloki Saria. Argazki eta txirrindularitza zaletu guztiei zuzendua dago. Gaia txirrindularitza izango da, zuri-beltzean eta koloreetan hiru argazki aurkeztu beharko dira egile bakoitzeko. Teknika eta aurkezteko moduz askatasun osoa dago. Gehienez ere 30 X 40 cmko kartoiez sendotuta. Ez da argazki digitalik onartuko. Irabazleak 155 euro eramango ditu. Sari berezia emango zaio Joseba eta Gorka Beloki txirrindulariei ateratako argazki onenari. Lanak, Argizpi Argazkizale Elkartera edo Basakana tabernara eraman behar dira. Lanak jasotzeko azken eguna urriaren 26a izango da.

Arte jardunaldiak

Egurrezko egituren eraikuntzei buruzko jardunaldiak antolatu ditu Aranzadi zientzia elkarteak. Urriaren 19an eta 20an izango dira Igartza Jauregian

Irakurketa Gidak

Beasaingo Udal Bibliotekak 2002-2003 ikasturterako, irakurketa gida osatu asmoz gaikako erakusketak antolatuko ditu. 'Mendia eta mendi ingurunea', 'Gabonak datoz! Liburu bat oparitu', 'Eskulan, moztorro eta aisialdia' eta 'Antolatu zure oporrak'. Gai hauen inguruko bibliografia eskura izango dugu beraz erakusketa honetan.


Zinema haurrentzat

Urritik aurrera eta larunbatero haurrei zuzenduriko filmak emango dira Usurbe Antzokian. Emanaldiak arratsaldeko 5etan hasiko dira eta sarrera 2,40 euro kostako da.

Asmoa, hilero gutxienez filma bat euskeraz ematea da dagoen eskaintzaren arabera.

Jesus Lopez 'Zulueta' pintorea saritua

Jesus Lopez Zulueta pintore beasaindarra, Errioxako Alberite udalak ematen duen sari berezia jaso du orain gutxi. Emilio García pintorearen omenez antolatzen duten lehiaketa da eta guztien adostasunez eman zitzaion saria. Alberiteko kiroldegiko hormako irudia berak egina da.



Asier Mujika txirrindularia sasoi onean

Muebles Ordizia txirrindulari taldeko beasaindarra sasoi onean da aurtengo denboraldian. Horren adibide, irabazi berri duen jubel mailako XXI. Beasain proba.

KZ Gunea martxan

Urriaren 15ean irekiko da herrian KZ Gunea. Interneteko kultura sortu, garatu, teknologia berriak eguneroko bizitzan integratu eta herritarrei kultura horretan sartzeko bidea erraztu nahi du Eusko Jaurlaritzak bideratzen duen KZ guneak. Herritar guztien eskura jarri nahi da internet, baina batik bat, zailtasun gehien dituztenen esku: etxe-koandrea, jubilatua, denbora lu-

zeko langabetu, eskulangile eta etorkinak.

Hori dela eta, ikastaro ezberdinak antolatuko dira abendura bitartean. Informazio gehiago udaletxean bertan duzue.

KZ gunearen ordutegia hau izango da: urriaren 15etik azaroaren 15era, goizez 9etatik 1era; azaroaren 15etik abenduaren 15era, arratsaldeaz, 5etatik 9etara.

Eskulan ikastaroa

Asteazkenetan 14:30etik 17:00etara izango da eskulan ikastaroa, urriaren 16an hasita. Matrikula: Olaberrin erroldatuak daudenak, 30 euro; gainerakoek, 42 euro. Izena emateko epea urriaren 8an bukatuko da. (Udaletxea: 943164084).

Yoga ikastaroa

Astelehen eta ostegunetan yogaren txanda izango da. Urriaren 17an hasiko da ikastaroa. Dena den, urriaren 10ean, arratsaldeko 7etan, sarrerako hitzaldia eskainiko da. Matrikula: Olaberrin erroldatuak, hilean 18 euro; gainerakoek, 20 euro. Izena emateko jo udaletxera (943164084).

Ugaro eskolakoak Salamancara

Ikasgelaz kanpo ikasten jarraitzeko helburuarekin, aurren ere, Ugaro Herri ikastetxeak 'Eskola Ibiltari' programaren barruan, Salamanca joango dira urriaren 15ean. Madrilgo Hezkuntza Ministerioak antolatzen du Eskola Ibiltari programa. Bertan parte hartzeko beharrezkoa da aurretik proiektu bat aurkeztea eta itzuleran, ebaluazio txostena idaztea.

6 mailako 11 ikasle eta 5. mailako 4 ikasle joango dira Salamanca aldera. Urriaren 21ean itzuliko dira. Kati Urretabizkaia irakaslea eurekin joango da.

'2002. urteko Europako Hiriburu Kulturala' da Salamanca. Salamancako monumentuak, haur eta gazteentzako liburuen nazioarteko zentroa, Arribes del Duero, Zilarren bidea, San Felices gaztelua, Saucelleko urtegia, Le-



Salamancara joango dira ikasleak eta irakaslea.

desma, Bejar, Candelari, Ciudad Rodrigoko ibilbidea eta monumentuak, Portugalgo muga, Francia mendizerra eta Alberca bisitatuko dituzte besteak beste.

Astebeteko egonaldian, Murtziako eta Aragoiko auto-

nomia elkarteetako beste bi ikastetxeak publikoetako ikasleekin egingo dute elkar bizitza. Ikusi eta ikasitako guztiarekin hainbat lan burutzea eskatuko zaie ikasleei, bai egun horietan, bai ondorenean.



Nafarroa
Etorbidea, 9

Tel.: 943 88 94 82

BEASAIN

Aholkularitza

ASEPLAN

Abokautak - Ekonomilariak

Tel.: 943 887 129

Oriamendi Kalea 15, behea **BEASAIN**

- ✓ Enpresen asesoria eta gestioa
- ✓ Etxebizitza salerosketa
- ✓ Etxeko jabekideen administrazio-lanak

ETA SUBENTZI

BEASAIN
gertu.asesoria@terra.es
www.gertuasesores.com

Udalaren eskerra

Pasa den irailaren 29an burutu zen I. Euskal hegaztien eguna antolatzea posible egin duten elkarte, talde, koadrila nahiz partikularrei bere esker ona azaldu nahi die udalak lerro hauen bidez. Bigarren edizioa antolatzeko ere guztion beharra izango da.

Zenbaki saritua: Hegazti eta hegaztiki lotea (2690) Uxue Maiotzek eskuratu zuen.

60 lagun dantza ikastaroetan

Eskolak eta guraso elkarteak antolatuta 5 urtetik 12 urte arteko 50 neska-mutiko hasi ziren irailaren 27an euskal dantzak ikasten eta hobetzen. Ostiralero, ikasturte amaiera arte arratsaldean arituko dira beheko eskolan Ane Rodriguez eta Maddalen Zurutuza irakasleekin.

Udalak bultzaturik, berriz, 12 urtetik gorako beste 10 gazte ere badabilta, ostiral iluntzetan, Nerea Bazterrargiren gidaritzapean.

Udal ikastaroak

Eskulan, egur tailaketa eta aerobik ikastaroak datorren astean hasiko dira. Ordutegiak aste honetan ziren zehaztekoak.

Euskara ikastaroa, azaroa arte atzeratu da taldea osatzeko jende gehiagoren beharrean. Maila ertaina. Udalak matrikularen %50 subentzionatuko du. Informazio gehiago udaletxean.

Euskal girotze barnetegia

Azken urteetan bezala, erdal giroko 8tik 11 urte bitarteko haurrei euskaraz bizitzeko aukera ematen zaie Segurako Aterpetxean. Araba, Gipuzkoa nahiz Bizkaiko eskola

20 herritar futboleko

Bazkide egiteko futboleko tabernan

Aurtengoan, inoiz baino jokalari herritar gehiago dira denboraldia hasi berria duten lau futbol taldeetan banaturik:

Errejonalean: Xabier Alustiza, Xanet Garmendia, Imanol Intxausti, Ibai Telleria eta Uritz Gonzalez.

Jubeniletan: Enetz Olano, Anaitz Goia, Urtzi Intxausti, Iban Ferreira eta Ergoitz Gonzalez.

Kadeteetan: Gorka Gerriko.

Infantiletan: Borja Gereñu, Endika Mantecon, Aitor Arostegi, Erik Carro, Joseba Suarez, Joanes Ferreira, Javi Rodriguez, Ander Egaña eta Markel Hernandez.

Zuzendaritza

Herrian futbolak funtzionarazteaz eta herriko zenbait aktibitateetan parte hartzeaz, Joxe Mari Izagirre (zuzendaria), Iñaki Albisu, Mikel Areizaga, Gurutx Aldanondo, Aitor Ariztimuño, Diego Aldanondo, Eduardo Aldanondo, Xabier Alustiza eta Imanol Aran arduratzen dira.

publiko, pribatu eta ikastoletatik etortzen dira, astero 30en bat laguneko taldea pasatzen delarik. San Joanak aldera arte 1000ren bat ikasle pasatzen dira.

Labur-labur

● **Eugenio Elorzaren ezti saritua.** Irailaren 28an Lazkaon burutu zen Goierriko eztingileen lehiaketan, Eugeniok aurkeztu zuen milalore eztiak, lehen saria lortu zuen, 12 partehartzailearen artean. Apirilean, Zegaman izango den Gipuzkoako txapelketarako sailkatua dago.

● **Atxiloketa.** Irailaren 29an, Guardia Zibilak Rafael Bera-



Errejonaleen taldea, aurreko zapatuan, Elgoibarren kontra jokatu aurretik.

Kadete eta infantilen taldeez, berriz, zegamarrak.

Entrenatzaileak

Errejonaleak: Iñaki Albisu eta Imanol Aran. **Jubenileak:** Luis Monreal. **Kadeteak:** Javi Eizmendi. **Infantileak:** Juan Carlos Garcia.

Bazkideen beharra

15.000 euro inguruko aurrekontua dute. Gastu handienak federakuntzako fitxetan, arbitraietan, bidaietan eta materialean izaten dituzte. Udalak mantenimendu gastuak bere gain hartzen ditu. Diru sarrerak beraien ekin-tzetatik, tabernatik eta bazkideengandik lortzen dituzte.

Bazkideei dagokionez, momentuz 100 inguru egin eta berriro dira. Hauek, behar-beharrezkoak zaizkie bizi-rauteko. Bazkide eginez futbolari eta herriari aportatu nahi dion guztiak, futboleko tabernan du aukera.

Asteburuko emaitzak

Errejonaleak: Segura 4-3 Elgoibar. **Kadeteak:** Mutriku 2-2 Aizkorri. **Infantileak:** Touring 0-2 Aizkorri.

Asteburuan etxean

Aizkorri - Real Union (infantileak), zapatuan, 11:00etan. Aizkorri - Aurrera (kadeteak, zapatuan, 17:00etan)

Joseba Telleria

sategi atxilotu zuen. Zenbait kontzentrazio burutu dira beraren askatasuna eta Euskal Herriarentzat konponbide demokratikoa eskatuz.

● **Josetxo Imaz II. memoria.** Irailaren 29an Ordizian herritar dezentek parte hartu bazuen ere, Laiotz Herri eskolakoak 15 izan ziren. Neska alebiletan, 800 metrotan, pistean, Maria Gerriko izan zen irabazlea eta Leire biga-

rrer sailkatu zen.

● **Jubilatuentzat hitzaldiak.** Urriaren 4an: 'Memoriaren sekretuak'. Hizlaria: Alazne Doyarzal sendagilea. Urriaren 8an eta 15ean, osasunari buruzkoak, Bereziartua sendagilearekin. 19:00etan, Kultur etxean.

● **Nafarroa Oinez.** Urriak 20, Tuteran. Elorri Kultur Elkartetik autobusa izango da.

Baserri-seinaleak

Seguran dauden 40 baserri ingururen seinalaztapena urrian hastekoa da udalaren iniziatibaz. Udalak argitaratu zuen mapa toponimikoan agertzen den izena baserri aurreko bidegurutzean ezarriko da bertara dagoen distantzia ere adieraziz. Seinaleak egur eta txapaz eginak izango dira.



%69,4k erabiltzen du euskara kalean

Idiazabaldarren %69,4k euskara erabiltzen du kalean. Gehien gazteek erabiltzen dute (%87,9) eta gutxien pertsona helduek (%55,9), tartean haurrak daude (%85). Hala erakusten du Sei Kultur Elkartek aurtengo martxoan Idiazabalen egindako Euskararen Kale Erabileraren Neurketak. Ikerketa martxoko bost egunetan egin zen, jendeari galdetu gabe, kalean neurketa egiteko momentuan erabiltzen ari ziren hizkuntzari dagozkion datuak jasotzen ditu txostenak.

Ikerketaren datu azpimarragarriena kalean hizketan ari ziren 100 lagunetik 69k euskara erabiltzen ari zirela da. Kopurua, Goierriko batz bestekoaren ia bikoitza da (%38,1). Gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak, beste herri askotan baino askoz altuagoa da kopurua. Herrian euskara gehien entzuten den unea ostiral iluntzeak di-

ra (%87,8) gutxien ostegun arratsaldetan erabiltzen da (%59,7). Ikerketaren arabera, gizonezkoek joera handiagoa dute euskaraz hitz egiteko emakumezkoek baino.

Euskararen ezagutzari dagokionez, herritarren %85,5 euskalduna da, %8,6 ia euskaldunak eta %6 erdaldunak. 10 euskaldunetik 6 alfabetuak dira. Euskara ezagutzen duten idiazabaldarren kopuruak behera egin du 1986 eta 1996 bitartean. Beherakada hori haurren kasuan nabarmena da.

Goierriko eta Euskal Herriko gainerako herriei alderatuta, Idiazabal eskualdeko herrien artean ezagutza maila altuenetakoa duena da. Euskararen erabilerari dagokionez alde handiz gaintzen ditu Goierriko, Gipuzkoako eta Hego Euskal Herriko erabilerak.

Etxegarate

Atzerapen askoren ondoren irailaren 26an Etxegarateko bide berriaren zati bat ireki zuten. Ursuaranerako sarrera irteera berriak egongo diren lekuan hasi eta Nafarroako mugara bitarteko 5 kilometroak daude zabalik. Tarteka karrilbakarra erabili daitekeen arren, bide gehienez bi karril daude norabide bakoitzean.

Urriaren bukaeran Benta Txikitik gorako kilometro eta erdi zabaltzeko asmoa dute. Gainerako azaroaren bukaerarako prest edukitzea espero dute. Orduan, atzerapenik ez bada, Gipuzkoako zatian dauden 8 kilometroak bukatua egongo dira. Nafarroako zatia urrian zabalduko dute.

Jubilatuen Eguna

Datorren igandean, urriak 13, ospatuko dute herriko jubilatuek beraien eguna. Egurdiko 12etan meza izango da eta ondoren, arratsaldeko 2etan bazkaria egingo dute Olaberriako Arrieta jatetxean. Bazkal ondorenean bildutakoen artean oparien zozketa egingo dute.

Laburrak

- Urriaren 15ean, asteartea, **aek-ren ikasturte berria** antolatze bilerara egingo da Kultur Etxean arratsaldeko 7etan.
- **Bielorrusiako neskak herrira ekartzeko** 2.985 euro erabili ditu Udalak. Horiei aurre egiteko herriko bi aurrezki erakundetan kontu korranteak daude zabalik. Oraingoz 82,63 euro bildu dira.

Xabier Urteaga

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta

Mekanika eta elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04

BEASAIN



Pedro Jose Landagutierrez

PSIKOLOGOA
Kol. Zkia. E - 1687

- ✕ Depresioak
- ✕ Harremanetarako arazoak
- ✕ Beldurrak
- ✕ Antsiak
- ✕ Segurtasun eza

Ordua eska ezazu konpromezurik gabe
☎ 943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ez. BEASAIN

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70
BEASAIN



Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

● Pintxo hotz eta beroak

● Ogitaratekoak

Musika Eskolak ateak zabalik



Azken lau urteotan, aurtengo bostkarrena dute, egin duten lan izugarriari merezi duen begirunea erakutsi asmoz, Nerea Barandiaran, Musika Eskolako arduradunetako batekin izan ginen solasean.

5 irakasle eta 40 ikasle inguruk dihardute astelehenetik ostiralera trikitixa eta panderoa, eskusoinua, txistua, gitarra klasikoa zein elektrikoa, eta pianoa irakasten eta ikasten. Eskaintza zabal honen arduradun dira Alaitz Tellexea oiartzuarra, "Alaitz eta Maider" taldeko partaidea, Lurdes Lerma ormaiztegiarra, Beñat Barandiaran zizurkildarra eta Nerea Barandiaran lazkaotarra, hurrenez hurren.

Instrumentuak jotzen irakasteaz gain Hizkuntza musikala ere irakasten dute. Hizkuntza musikala 4 mailatan banatua dago eta maila bakoitzeko, astean ordubete eskaintzen diote ikasgai honi eta beste ordubete instrumentuari. Irakasgai honetaz Nerea eta Lurdes arduratzen dira. Aurtengoan 29 ikaslek dihardute ikasgai honetan.

Urteetan atzera ginez, 97. urtean Santi Etxeberria eta Kultur sailaren ekimenez abian jarri zenean Musika eskola, 6 urtetik gorako ikasleekin hasi zirela gogorarazten digu Nereak. Baina aurtengoan Haur hezkuntzako ikasleak onartzea izan da berrikuntza. Izan ere, betidanik zintzilik zuten gaia zela hori dio Nereak, baina inoiz talderik osatzen ez eta aurtengoan ize-

na eman duten 4 ikaslerekin aurrera egitea erabaki omen dute. Haurrok, Musika Tailarrean, astean ordubete, psikomotritzitate eta jolasen bidez ekingo diote ibilbideari. Ondoren, 6-7 urterekin Hastapen Mailara pasatuko dira, astean bi ordutz, eta hortik, Hizkuntza Musikala eta beraien aukerako instrumentua ikastera.

"Eta gero zer? Titulurik izango al du nire semeak edo alabak?" Hori omen da guraso askoren ardura, baina Nereak esan digunez iada ez dago lehen bezala titulu bat lortzeko azterketarik, Hezkuntza Ministeritzak Logse legea martxan jarri zuenean desgertu zen hori guztia. Orain, Batxilergoa egin ostean musika karrera egiteko aukera eskaintzen dela, baina lehen bezalako titulurik ez dagoela garbi utzi nahi izan zuen Nereak, inork pentsa ez dezan bere seme edo alaba ezerezen trukean ari dela musika eskolan.

Hasiera hartatik honako balantzea egiteko eskatu diogunean, oso positibotzat jo du bai ikasleen jarrera zein konstantzia ere. Izan ere, hasiera

hartatik bi baja baino ez omen dituzte izan, hau da, hasi ziren ia guztiek jarraitzen dute eta hori oso pozgarria dela dio Nereak. Bestalde, ikasleek urte gutxian egin duten aurrerapena goraiatu du irakasleak. Aurrerapen horren lekuko izan dira ikasturte bukaeran eskaini dituzten jaialdiak. Dena den, "ez nuke nahi jaialdi horiek ikasleen helburu bihurtzerik, garrantzitsua da haurren motibazioarako baina ez nuke nahi egun horretarako prestaketa hutsean geratzerik gure lana". Ildo honetatik, haurrengan musika zaletasuna piztea dutela helburu dio Nereak eta ikasten ari diren horri erabilpen praktikoa bat bilatzea. Horregatik oso garrantzitsua litzatekeela dio herriko zein eskolako jaialdi zein ekintza desberdinetan jotzeko aukera eskaintzea. Hein berean, beraien ere, musika eskolaren eskaintza zabaltzeko duten

asmoaz hitzegin digu eta horren adibide, hizkuntza musikaren eta instrumentu ikasketaren lau mailak osatu ostean, Harmonia irakasten hasteko duten asmoa. Kantuen jarraipena egin, ulertu, kantak asmatu...ikasleengan nolabaiteko motibazioa, kuriositatea sortze aldera. Horregatik, "ez gara herri musikara bakarrik mugatzen, musika modernoa ere sartzen dugu, ikasleek gustoko dituzten taldeen abestiak ere irakasten saiatzen gara".

Ikasle helduak aurrera begirako erronka nagusia

Eskaintza zabaltzea eta Haur Hezkuntzako taldea abian jartzeaz gain, momentuan duten erronkarik nagusia ikasle helduak eskolaratzea dela dio Nereak. Egun, 3 ikasle helduk dihardute trikitixa, txistua eta pianoa ikasten baina jende gehiago anima dadin gustatuko litzaieke. Askoren komentarioa izan omen da "gaztexagoa banitz neonire hasiko nitzake" delakoa, baina musika ikasteko adin mugarik ez dagoela behin eta berriro azpimarratu digu Nereak. Ordutegia aitzakiatzat darabiltenek ere jai dute, izan ere, arratsaldeko 4etatik aurrera irekita bait ditu ateak musika eskolak.

Agurtzane Bikuña

Areto futboleko Gipuzkoako Liga abian da

02-03 Gipuzkoako Areto Futbolaren denboraldi hasi berriari hiru talde herritar arituko dira. Hiru taldeotri bat neskek osatua da. Ataun-Avia, Igor Sukia eta Xabi Etxeberriaren gidaritzapean, autonomi mailan lehiatuko da. Ataun-Bitor Jate-txea, bigarren mailan, Iban Sukia eta Aitor Urdangarinen aginduetara. Nesken taldeak, Ataun Juantxo taberna, Aitor Arruabarrenaren ardura pean jardungo du aurtengo denboraldian.

'Udalarekin harremanak euskaraz'

Berez eta legez, herritar orori bermatu behar zaio Udalarekin hizkuntza harreman gisa euskara hautatu nahi badu, hala egin dezan. Hainbat legegik eta dekretuk horrela adierazten dute. Ordiziako Udalak 2000ko urriaren 26an, Osoko Bilkuran, aho batez, onartu zuen Euskararen erabilera sustatu eta normaltzeko udal ordenantzak ere bai.

Gauzak honela, 'Udalarekin harremanak euskaraz' egitasmoa aurrera eramateko, langile bat kontratatu du Udalak. Etxean jasoko duzu bere bisita. Berak azalduko dizkizu egitasmoaren nondik-nor-

koak.

Bigarren bisita batean, Udalarekin harremanak euskaraz bakarrik nahi ote dituzten galderari herritarrak emandako erantzuna jasoko du.

Datuak bildu ondoren, datuak informatizatu beharko dira, Udalarekin izango dituen harremanetan euskararen erabilera bermatzeko.

Dena den, lana ahalik eta gehien erraztea eskatzen du Udalak. Hainbat arrazoi medio, Udaleko langile honen bisitarik jasoko ez bazenute, Udaletxera bertara deitzea eskertuko du Udalak.

Jose txo Imaz memorial arrakastatsua

685 korrikalarik parte hartu zuten II. Jose txo Imaz korrikaldian. 10 kilometroko ibilbidea egin behar izan zuten korrikalariek, Ordiziatik abiatu eta Beasain eta Lazkaon barrena. Gizonezkoetan, Dessaix-chin australiarra izan zen irabazlea (30.06ko denbora). Bigarren ere beste australiar bat, Jonathan Hall. Emakumezkoetan Estibaliz Urrutia izan zen irabazle (35.41ko denbora) eta bigarrena, Amaia Insausti olaberritarra.

Pilota Eskolaren ikasturte berria

Udako ajeak utzita, eta ikasturteari indarrez ekiteko asmoz, Pilota Eskolak ere hasi du ikasturte berria. Punta-puntako eta moda-modako pilotari batek eman zien ongi-etorria ikasleei: Abel Barriolak.



Kale Nagusia obratan

Herrigunean egiten ari diren egokitzeko lanen barruan, azkeneko kalearen txanda iritsi da. Kale Nagusia oinezkoentzako egokitzeko lanak hasi dira eta datozen hilabeteetan itxita egongo da kalea. Joseba Rezola etorbidean ere konpontze lanetan ari dira.



Artisaualdia 2002

Bosgarren urtez jarraian, aurten ere Artisaualdia izango da Majori Kiroldegian. Datorren asteburuan izango da, urriaren 12an eta 13an. 57 artisau izango dira bertan. Tartean bi ordiziar: Zorion Insausti ukendu eta kremekin eta Koki Fernandez zeramikarekin.

Giroa berotzeko, aurreko egunean, urriaren 11n, Karmelo Urdangarinek hitzaldia eskainiko du Barrena Kultur etxean, antzinako langintzen inguruan.

12. orrialdean duzue asteburuko berri zehatza.

Jakintza dantza taldea

Euskal dantzak ikasi nahi dituztenentzat izena emateko epea irekita du Jakintza dantza taldeak. 1997. urtean jaiotakoek ere eman dezakete izena aurten. Hortik aurrera, nahi duten guztiek.


Izena emateko 619437004 telefono zenbakira deitu behar da Anez galdetuz, edo Arana kaleko lokaletatik pasatu.

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN
 ☎ 943 02 73 58 Faxa: 943 02 79 39
 San Inazio, 5 BEASAIN

GERTU aholkularitza
txekin
 ENPRESA BERRIAK SORTZEKO
 DOHAINEKO AHOALKULARITZA
 ETA SUBENTZIOAK
BEASAIN
 gertu.asesoria@terra.es
 www.gertuasesores.com
 Kale Nagusia, 2
 Telf: 943 16 21 92
 Faxa: 943 88 36 33

PSIKOLOGI KLINIKOA
AGI
 Jose Ramon Pato Prieto
 Psikologian lizentziatua
 Elkargokide zenbakia: E-2644
 RPS: 42095
 JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN
 Helduen,
 umeen, bikoteen
 eta sexologi
 tratamenduak
AURRE ZITA
 ☎ 943 887 221
 ☎ 610 020 041

Karmele Iturbe psikoterapeuta



Karmele Iturbe Egurenek

Buenos Airesen bukatu zituen bere Psikologiako Ikasketak eta bertan urte betez ospital batean lan egiten izan ondoren Urretxun dabil Psikoterapeuta lanetan.

- Karmele zein pertsonen lagun diezaiokezu zure lanarekin?

- Gehienetan bizitzako momentu zail batean aurkitzen garenean eskatzen dugu laguntza. Bizitzaren zentzuan, norabidea ulertzen ez dutenei, sufritzen desesperatuak daudenei, bikote edota seme- alabekin zailtasunak dituztenei, lanean agobiatsuak edota antsietatez sekulako ezinegonaz daudenei... eta hala eta guztiz laguntza eskatzeko auzardia dutenei lagun diezaiekela uste dut.

-Zer da zuk eskaintzen duzuna?

- Begira behin Luis Mencia terapeutak idatzitako zerbait gogoan dut, hala zioen: "Un buen terapeuta tiene muchas cicatrices, conoce el sufrimiento y por eso puede asistir a

otros". Ni terapeuta eta pertsona bezela bestearen egoera ahal dudana gertuenetik ulertzen saiatzen naiz, bestea den guztia ikusi eta entzuten. Hau da aurrean dudana pertsonaren bizitza, sufrimendu eta intimitateagatik errespetu sakona izanaz bere gertur, nahasmen.. ikusi eta aurre egiten laguntzen saiatzen naiz.

- Baina zer da Psikoterapia eta zertarako balio du?

- Bizitzako egoeretara egokitze behar diren aldaketak burutzeko laguntzen digun harremana da Psikoterapia. Ni naizen guztiaren errehabilitazio prozesu bat ere bada, behar dudana eskatu, negar egin, aserretu, bizitza dartzatu... hau da ni naizenagatik errespetua errehabilitatzea.

- Jakin dugu Lazkaoko emakume taldearekin lanean ari zarela, zer egin behar duzue?

- Bai Erlajazio eta masaia ikastaro bat da, bere helburua gorputzeko tentsioak entzuten (bizkar, lepo gerri..) eta ariketa ezberdinen bidez erlajatzeko ikastea da. Urrian hasten gara.

Homeopatia Zentroa

Labeaga kalea, 66 - tarteko solairua A

Urretxu

943 72 55 66

ZINEA

GOIENIZ:

Urriak 10: 'La habitacion del hijo', 21:00etan, Usurbe antzokian.

BEASAIN:

Urriak 5: 'Lilo y Stitch', 17:00etan, Usurbe antzokian.

Urriak 12: 'ET. El extraterrestre', 17:00etan, Usurbe antzokian.

LEGORRETA:

Urriak 10: 'Los otros', 20:30ean, Herri Zineman.

Urriak 17: 'El hijo de la novia', 20:30ean, Herri Zineman.

ORDIZIA

'Kandahar'
Ostirala, 4: 22:15.

'Al otro lado de la cama'
Larunbata, 5: 19:30 - 22:15.
Igandea, 6: 19:30 - 22:15.
Astelehena, 23: 19:30 - 22:15.

'Las supernenas'
Igandea, 6: 16:45.

'Solo mia'
Ostirala, 4: 22:15.

goieniz



'La habitación del hijo'

Nanni Moretti
(Italia, 2001)

Nanni Morettik --bere filmen zuzendari, gidoilari, protagonista eta banatzaileak-- erabateko iraulia nozitu du azken filman, betiko umorea eta komedia beltza alde batera utzita, bizi-larritasunez betetako drama errealista bati heldu baitio. 'La Stanza del Fligio'-k erdi-goi mailako familia baten atsekabe jasanezinean barneratzen gaitu, istorio barnerako eta hunkigarri honen bidez.

Morettik erregistroa aldatzeaz gain kokapena ere berri du, bere betiko Erroma agurtu eta probintzietako Ancona hirira joango delarik, Adriatiko aldera. Honetaz gain, bere zinemagintzan ohiko izan diren kutsu autobiografikoa, obsesioak eta 'tic' bereziak ere pixka bat zokoratu dituela dirudi. Ondorioz, orain arteko pertsonairik errealistarena aurkeztu du, ez hain egozentriko, eta alboko oinazeari aurre egiteko haiekiko loturak sendotu behar dituen. Bizitzaren tragedia eta gizakiaren patu gaiztoari buruzko hausnarketa.

antzerkia

ZALDIBIA:

Urriak 7, Trapu Zaharra taldearen 'Laugarren tenorea', 19:00etan.

bertsoak

ZALDIBIA:

Urriak 5, Bertso jaialdia, 22:30ean: Alaitz Sarasola, Aitor Sarriegi, Estitxu Arozena, Xabier Silveira, Fredi Paia eta Jon Maia.

Urriak 7, Karidadeko Benta, bertso eta musika ikuskitzuna, 22:15ean.

musika

ZALDIBIA:

Urriak 4, Joselu Anaiak taldea, 23:30ean.

Urriak 5, Laguntasuna Errondaila, 12:30ean.

Urriak 5, Laiotz musika taldea, 23:30ean.

Urriak 6, 'Los navarricos' taldea, 19:15ean.

Urriak 6, Etzakit musika taldea, 23:30ean.

hitzaldiak

ZEGAMA:

Urriak 9, Thamer Birawi palestinarren hitzaldia eta diapositiba emanaldia, 19.30ean, Kultur etxean.

dantza

ZALDIBIA:

Urriak 6, Iztueta dantza taldea, 12:00etan.

erakusketak

BEASAIN:

Urriaren 6ra arte, Buztina Zeramika Elkartekoen lanak, Usurbe antzokian.

Azaroaren 18ra arte, V. Jesusen ikasleen erakusketa, Aterpe tabernan.

ORDIZIA:

Urriaren 4tik 25era, Mamen Arruti artistaren pintura erakusketa, Barrenan.

ZEGAMA:

Astebukaeretan, Ehungintza tailerraren erakusketa. Orduategia: 11:00-14:00 eta 16:00-19:00.

OINETXE

konponketak 24 ordutan

Tintaketak
Kreamilerak
Botoi forratuak
Brotxeak



Errematxeak
Kolorezko kremak
Kolorezko tintak



Plantilak
Lokarriak
Horma



Kale Nagusia, 44 Tel.: 943 88 90 89 BEASAIN

Ordutegia: 6:00-14:00 eta 16:00-20:30

Ordiziako Herri Antzokian Emakumearen gaiei buruzko filmeak, urriko ostiraletan

Ordiziako Herri Antzokia Zineak, urriko ostiraletan, emakumearen gaia ardatzat hartuko dituen filmak eskainiko ditu. Gaueko 10,15etan izango dira saio guztiak. Aurreikusita dauden filmak honakoak dira:

Urriak 4: 'Kandahar'. Iraniarra.

Urriak 11: 'Solo mia'. Espainiarra.

Urriak 18: 'Deliciosa Marta'. Alemaniara.

Urriak 25: 'El secreto'. Frantziarra.

Kandahar

Mohsen Makhmalbafen filma da 'Kandahar'. Nafas Kanadan errefuxiatutako kazetari gazte afganiarra da. Bere ahizpa gaztea Afganistanen bizi da eta hurrengo eguzki eklipsea baino lehen bere buruaz beste egingo duela esanez eskutitz bat bidaltzen dio. Nafasek bere herritik talibanen gerra zibilean ihes egin zuen. Kandaharrera itzultzea erabakitzen du bere ahizpari laguntzera eta Iran eta Afganistan arteko muga gurutzatzen saiatzen da.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Azpilikueta

(Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.

Urriak 5-6: Cuesta

(Nafarroa etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.

Urriak 12-13: Arriola

(Plaza Nagusia - Ordizia). 943 882628.

Merkatarientzako

informatika eta internet ikastaroak

Eusko Jaurlaritzako Merkataritzako Laguntzarako Bulegoak merkatarientzako informatika eta internet ikastaroak antolatu ditu aurreko urteetan bezala. Abendura bitarte emango dira ikastaroak, 12 lagunekoko taldeak osatzen badira. Hiru ikastaro antolatu dira. Informazio gehiago eskuratu edo izena eman nahi duenak, 943160673 telefono zenbakira dei dezake.

10 ordukoak: informatika salmenten sustapena eta merkatal ereduaren simulazioak.

20 ordukoak: informatikarako sarrera merkataritzan, kalkulua orria merkataritzan, datuen gestioa merkataritzan, informatizatutako merkatal gestioa, ordenagailu bidezko kontabilitatea, internet, fiskal eta kostu gestioa merkataritzan.

Internet ikastaroa: salerosketak interneten nola egin, saltoki elektronikoa nola jarri, promozio eta salmentak interneten, salmenta elektronikoen alderdi teknikoak, salmenta elektronikoen legislazio eta fiskalitatea, eta logistika eta segurtasuna.

Goieniz zine klubaren ziklo berria

Atzo, urriaren 3an, estreinatu zuen Goieniz zine klubak 16. zikloa, 'Fucking Amal' filmarekin. Abenduaren 19an amaituko da ziklo hau eta ohi bezala, Beasaingo Usurbe antzokian eskainiko dira filmak, ostegunetan, gaueko 9etan. Emanaldi bakoitzerako sarrerak 3 eurotan salduko dira. Ziklo osorako abonuak ere salgai daude, 12 eurotan. Zineman bertan eskuratu ahal izango dira. 16. ziklo honetarako aukeratutako filmak dituzue jarraian:

Urriak 10: 'La habitacion del hijo' (Nanni Moretti).

Urriak 24: 'No man's land' (Danis Tanovic).

Azaroak 7: 'La cienaga' (Lucrecia Martel).

Azaroak 14: 'La bicicleta de Pekin' (Xuang Xiaoshuai).

Azaroak 28: 'Los niños de Rusia' (Jaime Camino).

Abenduak 12: 'Comida rapida, mujeres activas' (Amos Kollek).

Abenduak 19: 'Berlin esta en Alemania' (James Stöhor).

HORTZ KLINIKA



CAMPAGNOLE Doktorea
Zirujau dentista

473 zki. kolegiatua

Bere hortz klinikaren zabaltzearen berri ematen dizue.

Odontologia, haur eta helduentzako ortodontzia, periodontzia eta hortz inplanteak jartzen ditugu.

Nafarroa etorbidea, 8 - 1.A

BEASAIN

☎ 943 085 229

KAFE TXIGORTZEN DUGU



KAFE eta TE denda

Santa Maria kalea 19

Tel: 943 88 12 80 ORDIZIA

Etxebizitzak

salgai

➔ Ordiziako Urdaneta kanean pisua salgai. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugelarekin. 943885664

➔ Legorretan pisua salgai. Txabola ere badu. Prezio onean. 670422051.

➔ Idiazabalen etxebizitza salgai, garajearekin. 605735042.

➔ Etxebizitza salgai Itsasondan. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta ganbara. 943674713.

➔ Etxebizitza salgai Beasainen. 3 logela. Baratz. Plazatik minutu batera. 943885751.

➔ Beasainen pisua salgai. Berritzeko. 605772243.

errentan eman

➔ Aiegin, Lizarratik kilometro batera, irailetik ekainera, pisua alokatzen da. 3 logela, berogailua, 2 autorentzako garajea. Dena irekia eta ikusmira onekin. 943884969 - 655722341.

➔ Urbasako mendilerroan etxea alokatzen da asteburu, zubi eta oporretan. 948533981.

errentan hartu

➔ Ordizian eta inguruan, pisu bat behar da alokairuan. 656760284.

➔ Bikote gazte euskaldunak pisua behar du alokairuan Zarautzen, urte osorako. 610738055. Unai.

konpartitu

➔ Madrilen ikasleekin etxea konpartitzen dugu. Mutil ez erretzaileak. 914595390.

➔ Leioan pisua osatzeko pertsona bat behar da. 652715314.

Negozioa

salgai/alokairuan

➔ Sagardotegia alokatzen da jubilazioagatik. Bezero finkoa. Errendimendu ona. Pertsona arduratsua eta esperientziaduna eskatzen da. Informazio pertsonala 676049931.

➔ Liburudenda alokatzen edo saltzen da Beasainen. 616698236.

Hizkuntza trukea

➔ Ingeles mintza praktika egingo nuke, gaztelera edo euskara mintzatu nahi duen norbaitekin. 943161476. Lurdes.

Bestelakoak

salgai

➔ Gaixoak oheratzeko garabia edo grua salgai. Oso egoera onean. 943084546.

➔ Egurra salgai. Iharra eta ondo txikitua. Pagoa eta haritza. Entrega etxera. 943883410.

➔ Monopoli tycoon eta Rally champion ship ordenadoreko jokoak salgai. Oso egoera onean. 60 euro. 943885749. Iluntzetan deitu.

➔ Seat Toledorentzako barrak, portaeskiak, portabizikletak salgai. 90 euro. 653719224.

➔ Audio CD grabadora salgai. Oso egoera onean. 35 CD opari. 943027903. Anjel.

➔ Ezkontzako soinekoa salgai. 2002ko uztailean erabilia. Aurten-go linea sentzilloa eta elegantea. Esku larruak ere bai. Dena 1.200 eurotan. 686788017 - 943363996. Arantxa.

➔ Sony markako Walkman erosi berria salgai. Dijitala da eta autorebersea egoera oso onean. 36 euro. 943027516. Gaez deitu.

➔ Dumperra salgai. Arranke elektrikoa eta bolquete hidraulikoa giratorioa. Oso egoera onean eta merke. 943885831.

Animaliak

opari

➔ Txakurkumea opari. 943889217.

➔ Katu helduak eta katakumeak opari, ardua handiko pertsonen. 943888171.

salgai

➔ Espaniel breton arrazako 4 txakurkume salgai. 2 hilabetekoak. 943801424.

➔ Hamar ardi eta bi ahari salgai. Bere kupoarekin. 651703224 - 943160479.

➔ Eugpaniel Breton arrazako txakurkumeak salgai. 652753572.

Mandio inmobiliaria

Laskurain kalea, 3 Tolosa

Telf: 699936801

✓ **Segura.** Billa adosatu berria, 2 solairutakoa, garajea eta terrenoarekin (jardina).

✓ **Gabiria.** Baserri berri-tua salgai.

✓ **Borda salgai.** Goierrin, ura eta argiarekin.

✓ **Ormaiztegi.** Billa adosatu berria. Tximeneta, terraza eta garajearekin.

✓ **Idiazabal.** Etxebizitza adosatu, garaje eta txokoarekin. Berria.

✓ **Alegin.** Etxebizitza berriak igogailuarekin.

lues rothers
BEASAIN

RENAULT
AGENTZIA

LAZKAO GARAJEA
Senpere Industrialdea
943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO

Kubako bidaietan espezialista

Kubako
Tel.: 943 889 291 Faxa: 943 883 971
e-posta: algoz@wanadoo.es

Ibilgailuak

salgai

➔ Golf GTI 2.0 salgai. 3. edizio berezia. Aire egokitua eta extra ugari. SS-AT, 110.000 km. Oso ondo zaindua. 658747902.

➔ Honda CBR 600 motorra salgai. SS-AJ. Egoera onean. 1.800 euro (300.000 pezeta). 620 227 773.

➔ Opel Monterrey toterrenoa salgai. 9 urte. Egoera onean. 1.100.000 pezeta. 656723131.

➔ Renault Clio 1700 salgai. 3 atekoa. Berdea. SS-AM. 615783362. Jexux Mari. Gauean deitu, 8etatik 9etara.

➔ Combo Tour furgoneta salgai. 1700 diesel. SS-AX. 943801474 - 6392850.

➔ Cady motorra salgai. Egoera onean. 120 euro. Gauez deitu. 943162510.

Lana

eskaerak

➔ Ataunen neska euskalduna behar da tabernan arratsaldean lan egiteko. 943180019.

➔ Asteburuatarako zerbitzaria behar da. 943880044.

➔ Pertsona euskalduna behar da Ormaiztegi-ko taberna batean asteburuetan lan egiteko. Esperientziaduna bada hobe. 943886577 - 943160205.

➔ Okindegi baterako saltzailea behar da. 615749901.

➔ Ormaiztegi-ko jate-txe batean zerbitzaria behar da. 943882893.

➔ Gaintzako taberna batean neska behar da asteburuatarako. 943886243.

➔ Altzagan pertsona bat behar da fregadera-ko lanak egiteko larunbat gauean eta igande batzutan. 615700408.

➔ Emakume edo neska bat behar da Lazkaon, goizez 2 haur zaindu eta etxeko lanak egiteko. 625704453. Arratsaldetan deitu.

➔ Sagardotegi batean bi zerbitzari behar dira: bat aste guztirako eta bestea astebururako. 943882049.

eskaintzak

➔ Neska bat eskaintzen da hurrengo urtean arratsaldeetan lan egiteko. Umeak zaintzen edo dendan. 606598100.

➔ Beasaingo 25 urteko neska prest dago arratsaldeetan haurrak zaintzeko. 686374559. Sonia.

Langai

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritza

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Goierriko Herrien Ekintza

943 884 401

GALDARAGILEA

Goierri. Erref. 87756/5

ERAIKUNTZA KAMIOI GIDARIA

Tolosan. Erref. 88076/4

SUKALDARIA

Tolosan. Erref. 88692/4

INPRMATEGIKO 1. OFIZIALA

Tolosaldean. Erref. 88865/4

ADMINISTRARIA

Tolosaldean. Erref. 88868/4

LOGISTIKAKO IRAKASLEA

Tolosan. Erref. 89312/1

PEOIA

Tolosan. Erref. 89393/1

PINTURA TEKNIKARIA

Altsasun. Erref. 88723/2

AUTOMATISMO ELEKTRIKOEN TEKNIKARIA

Altsasun. Erref. 87361/3

KOMERTZIAL TEKNIKARIA

Altsasun. Erref. 87362/3

IKASTEK AKADEMIA 2002-2003 IKASTURTEA

Goierriko akademia integral bakarra. Hezkuntzako profesionalek zuzendua

ESKOLA LAGUNTZA

- * Gai eta maila guztiak
- * Lehen hezkuntza, DBH
- * Batxilergoa
- * Moduluko, Zikloak
- * Unibertsitate-maila

GOIERRIKO UNIBERTSITATEA

- * Marrazketa teknikoa
- * Fisika
- * Matematika
- * Teknologia

TAILERRAK

- * Ortografia
- * Irakurmene
- * Idazmena
- * Testu komentaketa
- * Matematika
- * Logika, Kalkulua

IKASKETA ARAZOAK

- * Errendimendua
- * Atentzioa
- * Ohiturak
- * Metodoak
- * Emozioen kontrola

Joan Iturralde, 5 BEASAIN ☎ 943 160 120

ikastekakademia@latinmail.com



Zaldibitarrak, 1920ko hamarkadan

Zehatz noizko argazkia den ez badakigu ere, 1920ko hamarkadan ateratakoa da eta bertan ageri direnak Zaldibiako eskolumeak dira.

MARIBI
Ileapaindegia



Jai
zoriontsuak
denoi!

Bide-Arte, 48
☎ 943 88 57 49
ZALDIBIA

INAKI ERAUSKIN
HARATEGIA

Mondeju ederrak!

☎ 943 88 30 87
Santa Fe Kalea ZALDIBIA

ZUBI
ONDO

TABERNA

☎ 943 88 28 76 ZALDIBIA

Gaztelu

Mendi-Ondo etxea
☎ 943 88 40 57
ZALDIBIA

● Iturgintza
● Berogintza

Esteban Lasa, 7
☎ 943 88 80 29
BEASAIN



Santa Fe jai
zoriontsuak!



Loradenda

Santu Guztien egunerako enkarguak
hartzen ditugu

- ✓ Ezkontzako lora sortak
- ✓ Kotxe eta eliz apainketak
- ✓ Koroia
- ✓ Lora apainketa mota guztiak
- ✓ Larunbat arratsaldetan zabalik

☎ 943 889 883
Geltokiko kioskoa **ORDIZIA**



Internetarako doako Sarbidea
eta Prestakuntza eskaintzen
dituen Zentro-sarea

BIZKAIA

Arrigorriaga

Paseo Urgoiti, 3 • Tel.: 94 6714608

Bakio

Barrio Urkizaur, 28 • Tel.: 94 6195718

Balmaseda

Martin Mendia, 15 • Tel.: 94 6801390

Barakaldo

La Florida, 14 - 16 • Tel.: 94 4389923

Basauri

Ibaigane, 2 • Tel.: 94 4496641

Berango

Abarotxu bidea, 17 • Tel.: 94 6682502

Bermeo

Zubiaur tar Kepa, 26 - 28 1goa
Tel.: 94 6881194

Berriz

J. V. Zengotitabengoa, 8
Tel.: 94 6225767

Bilbao -Basurto

Luis Briñas, 18 • Tel.: 94 4413971

Bilbao -Begoña

Circo Amateur Club Deportivo, 2
Tel.: 94 4734890

Bilbao -Uribarri

Plaza Moraza Enparantza, 4 A
Tel.: 94 4460972

Durango

Monagotorre, 2 behe
Tel.: 94 6203863

Elorrio

Berriotxo, 16 bajo/baxua
Tel.: 94 6583189

Ermua

Cruce Kaltzango, s/n
Tel.: 943 174702

Etxebarri

Parque Bekosolo Parkea, 2
Tel.: 94 4492622

Getxo-Areeta

Las Mercedes, 13 - 4gna (Areeta)
Tel.: 94 4316589

Getxo-Algorta

Avenida Algorta etorbidea, 98
Tel.: 94 4911724

Gordexola

Plaza Molina Enparantza, 11
Tel.: 94 6798066

Gorliz

Plaza de la Iglesia, s/n (udaletxea)
Tel.: 94 6775200

Güenes

Urrestieta, 21 bajo (antigua ikastola)
Tel.: 94 6692350

Igorre

Elexalde, 30 • Tel.: 94 6737018

Iurreta

Bidebarrieta, 4 (Ibarretxe Kultur Etxea)
Tel.: 94 6203826

Karrantza

Barrio Soscaño, 50 • Tel.: 94 6106970

Leioa

Sabino Arana, 48 • Tel.: 94 4636503

Markina-Xemein

Xemein etorbidea, 13
Tel.: 94 6168429

Mungia

Gamizbidea, 30-32 • Tel.: 94 6741217

Orduña

Gran Vía, 10 • Tel.: 945 384539

Portugalete

Casilda Iturrizar, s/n • Tel.: 94 4954158

Santurtzi

Los Cueros s/n (Instituto de FP)
Tel.: 94 4611768

Sestao

San Diego, 12 • Tel.: 94 4950826

Sopelana

Gatzarriñe, 2 • Tel.: 94 6762477

Zalla

Maestra Consuelo Robredo, 18
Tel.: 94 6390332

ARABA

Amurrio

Landako, 8 • Tel.: 945 890514

Asparrena

Ilarduibide, 7 (Kultur Etxea)
Tel.: 945 304227

Artziniega

Cantón de la Parroquia, 2
Tel.: 945 396513

Kanpezu

Debajo de las casas, 2 (Kultur Etxea)
Tel.: 945 415157

Laguardia

Sancho Abarca, 16 • Tel.: 945 600517

Laudio-Llodio

Lamuza, 13 • Tel.: 94 6728397

Legutiano

Plaza Ortiz de Zarate, s/n (Kultur Etxea)
Tel.: 945 455342

Vitoria-Gasteiz -Hegoalde

Alberto Schommer, 10 (centro cívico)
Tel.: 945 230055

Vitoria-Gasteiz -Lakua

Senda de los Echánove, s/n
(centro cívico) Tel.: 945 178225

Vitoria-Gasteiz -Aldabe

Eulogio Serdán, 2 bajo (centro cívico)
Tel.: 945 139667

Salvaterra-Agurain

Fueros, 16 (club de jubilados)
Tel.: 945 301072

Zuia

Añureta, 2 (Casa Veia-Murguía)
Tel.: 945 430740

GIPUZKOA

Alegia

Bejstín Auzoa, z/g (Kultur Etxea)
Tel.: 943 698869

Arrasate

Otalora, 10
Tel.: 943 793554

Astigarraga

Tomás Alba, 13
Tel.: 943 557673

Azkoitia

Trenbidearen Zumardia, 1
Tel.: 943 850146

Azpeitia

Foru Ibilbidea, 18 • Tel.: 943 811864

Beasain

Oriako Pasealekua, 12
Tel.: 943 160147

Deba

Ifar kalea, 4 baxua • Tel.: 943 192107

Donostia-San Sebastián -Alderdi Eder

Parque Alderdi Eder Parkea, z/g
Tel.: 943 423865

Donostia-San Sebastián -Ernest Lluch

Paseo Anoeta Pasealekua, 7
Tel.: 943 465718

Donostia-San Sebastián -Egia

Baztán, 21 • Tel.: 943 281521

Donostia-San Sebastián -Larrotxene

Intxaurrondo, 57 • Tel.: 943 280731

Donostia-San Sebastián -Casares

Camino Darrieta Bidea, 1
Tel.: 943 352745

Errenteria

Olibet, 6 baxua/bajo • Tel.: 943 520692

Eibar

Carmen Kalea, 3 bajo/baxua
Tel.: 943 120390

Elgoibar

Nafarroa plaza, 1-2gn. pisua
Tel.: 943 748828

Idiazabal

Kale Nagusia, 52 (Pilarrenea)
Tel.: 943 187132

Ikaztegieta

San Lorenzo, s/n • Tel.: 943 650507

Irún

Alfonso Morales, 4 • Tel.: 943 615571

Lasarte-Oria

Oriamendi plaza, 2 bajo/baxua
Tel.: 943 360568

Legazpi

Plaza Latxartegi Enparantza, 3
Tel.: 943 737031

Mendaro

Herriko Enparantza, 1 (udaletxea)
Tel.: 943 756013

Oiartzun

Madarensoro plaza (frontón)
Tel.: 943 490875

Ordizia

Domingo Unanue Plaza, 8 behe
Tel.: 943 884378

Soraluze

Baltegieta, 18
Tel.: 943 753045

Tolosa

Pablo Gorosabel, 34 - B
Tel.: 943 653720

Urretxu

Barrenkale, z/g
Tel.: 943 725359

Zarautz

Zigordia, 34 • Tel.: 943 135046

Zumaia

Foronda Kultur Etxea
Tel.: 943 862866

Zumarraga

Avda. Iparragirre Hiribidea, 4
Tel.: 943 720728

HURRENGOAK

ARABA

Alegria-Dulantzi
Elciego
Iruña de Oca
Izarra
Labastida
Oion

BIZKAIA

Abanto
Basauri 2
Bilbao -Deusto
Bilbao -Otxarkoaga
Galdakao
Larrabetzu
Lekeitio
Loiu
Mutriku
Ondarroa
Ortuella
Usansolo

GIPUZKOA

Bergara
Donostia -Lugaritz
Hernani
Hondarribia
Lezo
Olaberria
Oñati
Orio
Zaldibia
Zegama
Zerain

euskadi
informazio gizartearen en la sociedad de la información





SILVIA MIRASCASAYAS
ODONTOLOGOA

SILVIA MIRASCASAYAS
ODONTOLOGOA



Urtebete egin dugu gure zentru berrian, behar guztiak asetzeko erabat horniturik dagoena; elbarrituentzako guztiz egokitutako instalakuntzetik hasi eta zure ongizatea lortzeko behar diren guztiak zaindu ditugularik. **Teknologi aurreratuenak zure esku jarri,** gure lan talde espezializatuak norbanako tratamendu egokienaz landuko ditu zure beharrak, bai **inplantologi,** **estetika** edota **zirugi** mailan.

Erabateko hortz klinika integratua.

SMC

ERABATEKO

GURE INSTALAKUNTZAK ELBARRITUENTZAT

HORTZ

ERABAT EGOKITUAK DAUDE, KLINIKAK SAN

KLINIKA

INAZIO KALE BERTARA EMATEN DUELARIK

INTEGRATUA



Teknologia, profesionaltasuna eta arreta, zerbitzu bakar batean bateratuz, giro goxo batean, zerbitzurik hurbilena eskeiniz, dentistarekiko zure ikuspegia aldatuko dugu.



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)